

ARRASATE BERGARAKO LURRALDEAREN ZATI KO PLANA (DEBAGOIENA)

BEHIN BETIKO ONARPENA

II. LIBURUKIA

- 2. DOK.: - MEMORIA
- 3-4. DOK.: AZTERLAN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA
EGIKARITZE PROGRAMA

SUSTATZAILEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO
Y MEDIO AMBIENTE



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION DE GIPUZKOA
OBRA HIDRAULIKO ETA HIRIPLANGINTZA DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE OBRAS HIDRAULICAS Y URBANISMO

EGILEAK:



TOLEDO TALDEA.
GRUPO de SERVICIOS URBANISTICOS y ARQUITECTURA
ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA ZERBITZU TALDEA.

2005eko apirila

ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA

2. D O K.- M E M O R I A

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATIKO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

AURKIBIDE OROKORRA

HITZAURREA	4
I.- TALDE IDAZLEA	5
II.- SARRERA. AURREKARIAK	6
0.- HELBURU OROKORRAK ETA LURRALDE EREDUA	8
1.- DEBAGOIENEN EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA IRITENBIDE OROKORREN DEFINIZIOARI BURUZKO IRITZIAK	9
2.- HELBURU OROKORRAK	11
2.1.- Gaur egungo egoeraren diagnostikoa	11
2.2.- Garapenerako helburuak	13
2.3.- Lurralde-eredua	15
1.- INGURUNE FISIKOA	20
1.- HELBURUA	21
2.- AURRETIAZKO IRITZIAK	21
3.- LURRALDEAREN KATEGORIZAZIOA	23
1.- Natura-intereseko eremuak	24
2.- Nekazaritza-intereseko eremuak	26
3.- Interes hidrologikoko eremuak	27
4.- Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak	28
5.- Hobetu eta leheneratzeko eremuak	29
6.- Hobi arkeologikoak eta paleontologikoak	30
2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK	31
1.- ETORKIZUNEN KOMUNIKAZIO SAREA	32
2.- BANAKETA SAREAK	35
3.- ZERBITZUAK	35
4.- URAREN ZIKLOA	36
5.- GARRAIOA	36
3.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK	37
0.- IRIZPIDE OROKORRAK	38
1.- EKIPAMENDUAK	38
1.1.- Unibertsitate-ekipamendua	38
1.2.- Kirol-ekipamendua	39
1.3.- Kultur ekipamendua	39
1.4.- Administrazio-ekipamendua	39
1.5.- Osasun eta Laguntza Ekipamendua	40
1.6.- Aisia, turismo eta merkataritzako ekipamendua	40
1.7.- Ekipamendu Judiziala	41
1.8.- Ondare Historiko Arkeologikoa	41
2.- GARRAIOARI LOTUTAKO EKIPAMENDUA	41
3.- ESKUALDEKO ESPAZIO LIBREAK. AISIALDI EREMUAK	42
4.- BIZITEGI LURZORUAK ETA EKONOMIA JARDUERETAKOAK	43
1.- LURRALDE EREDUA	44
2.- BIZITEGI LURZORUAREN KUANTIFIKAZIOA	46
1.- EREMU FUNTZIONALA	46
2.- LURRALDE ESPARRUAK	48
3.- UDALERRIAK	49
ERANSKINA: BIZITEGI LURZORUAREN ESKAINTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEN ARABERA KUANTIFIKATZEKO KALKULU ORRIA	53
3.- EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORUAREN KUANTIFIKAZIOA	54
1.- EREMU FUNTZIONALA	54
2.- LURRALDE ESPARRUAK	58
3.- UDALERRIAK	59
5.- HIRI PLANGINTZARAKO IRIZPIDE, PRINTZIPIO ETA ARAU OROKORRAK.	63
0.- SARRERA	64
1.- HIRI ARLOKO ESKU HARTZEAK ETA ESKU HARTZE URBANIZAGARRIAK	64
1.1.- Ekonomia-jarduerak	64
1.2.- Hiri-birgaitze eta hiri-berrikuntzako eragiketak eta esparruak	65
2.- ERAGIKETA BEREZIAK LURRALDERAKO SARRERAGUNEETAN	67
3.- KULTUR ONDAREA BABESTEKO ESKU HARTZEAK	69
4.- BESTE ZENBAIT ESKU HARTZE ETA KOORDINAZIO ESPARRU	70
PLANGINTZA BATERATUA ETA BATERAGARRIA	70
ERANSKINA: EREMU FUNTZIONALERAKO PROPOSATUTAKO EREDUAREN ETA HURBILEKO LURRALDE INGURUNEAREN ARTEKO ERLAZIOA	72

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATIKO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

HITZAURREA

2005eko apirila

I.- TALDE IDAZLEA

Lan honetan honakoek hartu dute parte:

➤ ZUZENDARITZA

- **EUSKO JAURLARITZA. / GOBIERNO VASCO**
LURRALDEANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
- XABIN INTXAURRAGA MENDIBIL. Sailburua
- ABEL MUNIATEGI ELORZA. Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitateko sailburuordea



LURRALDE ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIA
DIRECCIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO:
- MARTÍN ARREGUI SAN MIGUEL. Zuzendaria

TALDE TEKNIKOAK:

- JESUS MARÍA ERQUICIA OLACIREGUI. Arkitekto koordinatzailea
- PILAR MONJAS RUBIO. Arkitektoa
- JOSE RAMÓN VARELA BALENCIAGA. Arkitektoa
- TEODORO OLEA ITURREGI. Zuzenbidean lizentziatua

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**
LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN TERRITORIAL



LURRALDE ANTOLAKETARAKO ZUZENDARIA:/ DIRECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL:
- JOSE RAMÓN IZKEAGA ZINKUNEGI. Zuzendaria.

TALDE TEKNIKOAK:

- MAITE CELAYA ERRAZU. Arkitekto koordinatzailea.
- JOSEBA LARZABAL GOIZUETA. Arkitektoa
- MAITE IRIBARREN GOICOECHANDIA. Zuzenbidean lizentziatua

➤ LAGUNTZA TEKNIKOAK

• ZUZENDARIA

- JOSE MIGUEL TOLEDO ETXEPARE.- Arkitektoa
- JAVIER AZPILLAGA ZUAZUA (koordinatzailea).- Arkitekto teknikoa. Lurraldearen antolamendu eta ingurumeneko masterra

• LAGUNTZAILE NAGUSIAK

- JAVIER REGUERA ARDANZA.- Arkitektoa
- CRISTINA ZARRABEITIA PEÑALBA.- Arkitektoa

• OINARRIZKO LAN-TALDEA

- MARÍA LASA BELLOSO.- Arkitektoa
- NIKOLAS BARANDIARÁN CONTRERAS.- Arkitekturako ikaslea
- EDURNE GOYA CARACCILO.- Dok. grafikoa
- JUAN GURRUCHAGA LINKEL.- Dok. grafikoa
- UXUE AZPIROZ AZPIROZ.- Testua eta konposizioa

• LURRALDEA ETA INGURUMENA

- CARMEN SEGUROLA LÁZARO.- Geografoa. Lurraldearen antolamendu eta ingurumeneko masterra.
- ANTONIO BEA (EKOS).- Biologian doktorea.



II.-SARRERA. AURREKARIAK

Arrasate Bergarako Lurraldearen Zatiko Plana izeneko lan honen bitartez gauzatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea antolatzeko legea Debagoieneko eremu funtzionalaren lurraldeari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan eremu funtzional hori “bitarteko” lurralde-eskalako esparru gisa mugatu zuten, eta, horretarako, tamaina fisiko eta funtzionaleko irizpideak kontuan hartu zituzten. Izatez, tamaina fisikoak eta funtzionalak egokia behar du izan arazoak aztertzeko eta EA Eren osotasunerako gaineratutako orientabide orokorren eraginkortasuna bermatuko duten antolamendu programak aplikatzeko.

Idatzi den dokumentua Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu duten prozesu luze eta korapilotsu baten amaiera da. Dokumentua sinatzen duen taldeak, berriz, 1997. urteaz geroztik hartu du parte prozesu horretan.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren 2001eko martxoaren 20ko Aginduaren bitartez, eta data bereko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bitartez, Debagoieneko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak onartzen ziren. Agindu eta Erabaki horien azalpen-zatian zerrendatzen den gertakarien sekuentziak Planaren ibilbidea zehazten du, eta, ebazpen horiei jarraituta, plan hori hasiera batean onartzeko dokumentua lantzeari ekin zitzaion.

Plan hau gauzatzeko lurraldearen bereizgarri diren hasierako baldintzak berraztertu dira (biztanleria, plangintza, sektoreko ekimenak...), baldintza horien arabera finkatzen baititugu antolamendu eta koordinazioko helburu berriak. Horretarako, hamaika bilera eta kontsulta egin dira lanaren zuzendaritzaren arduradunekin (entitate sustatzaile publikoekin), eremu funtzionala osatzen duten udalerriekin –batez ere beren plangintza orokorra berraztertzen ari direnekin– eta lurralde-antolamenduko politikan eragin handiena duten sektoreetako organismoekin.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren 2003ko urtarrilaren 14ko Agindu bidez hasiera batean onartu ondoren, eta jendaurrean jarri ostean, aurkeztutako alegazioei erantzun zitzaion. Hala, talde idazleak egindako txostena ikusirik, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren 2004ko uztailaren 27ko Agindu bidez, behin-behineko onartu zen bertan dokumentua, aditzera ematen diren aldaketekin. Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari aurkeztu zitzaion, jakinaren gainean egon zedin, eta dokumentu honetan bidezko aldaketak sartu ziren, behin betiko onartu beharreko Testu Bategina osatzearen.

Behin betiko dokumentuaren adierazpen grafikoa ondorio horretarako finkatutako jarraibide orokorretara moldatu da.

Bere edukian Planak hainbat alderdi teoriko ematen ditu aditzera (aukera sozio-ekonomikoak eta kulturalak), eta alderdi horietan, hain zuzen ere, oinarritzen dira proposatutako lurralde-ereduaren proposamenetako batzuk.

Irizpide horiek labur-labur eta zati batean soilik eman dira aditzera, gai horiek zehatz-mehatz jorrazeko azalpenak oso luzeak izango baitziren eta proposamen-lan honetan horrek ez baitu ez zentzurik ez eta lekurik ere.

Lurraldearen Zatik Planen gisako bitarteko eskalako lurralde-antolamenduaren eraginkortasunerako funtsezkoa da, gure iritziz, gaur egun boterea eta erabakia duten egiturak berraztertzea eta tokiko finantzaketarako mekanismoak berraztertzea. Haatik, agindu zaigun lanari gai hori ez dagokionez gero, alderdi hau aipatu besterik ez dugu egingo paragrafo labur honetan.

Azkenik, eskertu nahi dugu Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek eta arduradun eta ordezkari politikoek lan honetan eman diguten laguntza.

Era berean, ez dugu ahaztu nahi Debagoieneko Mankomunitateak egin duen ahalegina eta lana. Lurralde-antolamenduaren esparruan osagarriak diren azterlanak koordinatu, hedatu eta landu ditu.

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

0.- HELBURU OROKORRAK ETA LURRALDE EREDUA

1.- DEBAGOIENeko EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA IRTENBIDE OROKORREN DEFINIZIOARI BURUZKO IRITZIAK

Lurraldearen Zatioko Plana lantzeko lanak zein irizpideren arabera egin behar diren finkatu ondoren, eta eskatu zaigun dokumentuaren aurretiazko azterketaren ostean, Planaren printzipio gidariak zehazten dituzten honako alderdiak eman behar dira aditzera:

- Irizpide orokorreari dagokienez, gure iritziz ez dago kontraesanik irizpide eta helburuei buruzko dokumentuaren zehaztapenen eta orain planteatzen diren irtenbideen artean.
 - . Gune anitzeko unitatea osatzea.
 - . Azpi-eskualdearen mailako egitura berrerekatua.
 - . Espazioaren okupazioaren zehaztapen orokorra.
 - . Norabide-eskema.
 - . Esku-hartze estrategiko nagusiak. Zuzkidura-alderdiei lotzen zaizkienak izango dute lehentasuna
- Orokorrekiak eta anbiguoekiak ziren guztiak gainditu ahal izan dira gehiago jorratu eta zehaztu ondoren. Alabaina, berezitasun handieneko bi esparruetan kokapenerako beharrezko erreserbak mantendu dira: Elorregiko espazio eta zuzkidurako interkonektorea eta Oñatiko hiri-ingurunearen garapen osagarria. Esparru bakoitzerako azterlan zehatza egin dadin proposatzen dugu, kautelazko baldintza gisa (ekimen publikoko plan bereziak).
- Era berean, denboraren poderioz zaharkituta geratu diren proposamenak eguneratzeari ekin zaio:
 - Lurralde eta sektoreko plangintza.
 - Eibar-Gasteiz autobidearen trazadura eta lotuneak.
 - Dagoeneko egin diren hainbat esku-hartze edo garapeneko proposamen.
 - Babestutako natura-espazioen mugapen zehatza.
 - Eskualdeko unibertsitatearen sorrera aintzatestea eta balioz hornitzea, bai eta maila teknologiko gehieneko ekonomia-jarduerak ere.
 - Udal-plangintza orokorra.
- Agian, dokumentu honen funtsezko alderdia eskualdeko baliabideak garatzeko eta balioztatze borondatean datza. Izatez, gainditu egiten da etorkizuneko beharrak

finkatutako egoeretan oinarriturik koordinatzeko irizpide hutsa; nahiz eta horretarako ekimen sortu berriak erabiltzen diren (Unibertsitatea, garapen teknologikoko ardatza). Hortaz, ekimen sortu berri horiek sustatu nahi ditugu, eta eremu funtzionalaren osotasunera zabal daitezzen lortu nahi dugu.

- Ildo horretan, komunikazio-azpiegituren garapenarekin, eskualdeak biziko duen aldaketa handi horrek ezinbestekoa izango du pareko tratamendua garatzea ahalmen sozio-ekonomikoetan eta zuzkidura-ahalmenetan.
- Eremu funtzionalean nagusituko den lurralde-eredua zehazteko helburuaz gain, beste bi helburu bat jaso nahi dugu helburu ukiezin gisa (lurralde-antolamendu zehatzaren ikuspuntutik jakina); batetik, nortasun propio berri bat eraiki beharra (“Proiektu-nortasuna: gizarte-eragileek, beren esku dauden material kulturaletan oinarriturik, gizartean duten kokapena berriro definituko duen nortasun berria eraikitzen dutenean eta, hala egitean, gizarte-egitura osoaren aldaketa bilatzen dutenean...”), eta, bestetik, gizartearen osotasunerako balio garrantzitsuak irudikatzen dituzten –landa-munduaren kasuan– “nortasun” horiei eusteko beharra (izatez, horiek galtzea eragina nabarmena izango luke eremuaren esentzian bertan).

2.- HELBURU OROKORRAK

2.1.- Gaur egungo egoeraren diagnostikoa

XX. mendeko biztanleria-erolden bilakaera aztertuta (1900-1996), ikus daiteke Debagoieneko eskualdeak etengabeko hazkunde demografikoa izan duela (25.853 - 64.763). Haatik, Gipuzkoaren osotasunean behera egin du eskualdeak demografikoki duen garrantzi erlatiboak (%13 - %9,4). Garrantzi erlatibo horretan gertatu den beherakadaren arrazoia Donostialdearen inguruko azpi-eskualdeetan izan den hazkunde handian dugu (%39 - %54,9), azken hamarkadan %1,1eko hazkundera izan da bertan.

2001 eta 2011ko eszenategi demografikoei dagokienez, etorkizunera begira biztanleria murriztuko zela aurreikusten da.

1.991 - 64.763
2.001 - 63.259
2.011 - 61.146

Haatik, 2001eko eroldaren arabera populazioa 63.467 biztanlera heltzen da.

Bilakaera demografiko horrek, beraz, finkatu egiten du honako iritzia: eremu funtzionalaren etorkizuneko bilakaera-prozesua bideratzen duten joera nagusiek hainbat dinamika eta alternatibari egin beharko diote aurre, eta horretan eragin handia izango du higiezinaren arloko prozesu eta proiektuak finkatzeak. Debagoieneko eskualdeak enpleguari dagokionez dituen ezaugarriei esker orokorrean diagnostiko positiboa egin behar dugu.

- Alderdi sozio-ekonomiko estrategikoen profila:
Argi eta garbi ikus daiteke eremu funtzionala egoera berezian dagoela lan-merkatuari, enpresa-ehunari eta dinamismoari dagokionez.
- Bizitegi/lana fluxuen ratioak:
Eskualdean sortutako lanpostuen kopurua eta bertan bizi den biztanleria landunaren bolumena berdina da. Bizitegia/lana erlazioaren desplazamendu-maila %15,6koa da (24.600 lanpostu eta 21.190 bertako biztanle landun).

Gaur egungo datuetan (ekonomia-jarduerari buruzko Lurraldearen Arloko Planean) adierazten denez, lanpostuen eszedentea, hau da, bertan bizi ez direnek betetzen dituzten lanpostuak 3.700 enplegukoa da, aurretik ebaluatutako 3.410en aurrean.

Alderdi hori eta beste elementu erakargarri batzuk (Unibertsitatea) kontuan izanik, eskaria handitzeko aukera planteatzen dugu, eta, horri erantzuteko, bizitegi-eskaintza zabaldu beharko da (etxebizitza, bizitegi kolektiboa...).

- Bizitegi/lana fluxuen ardatza:
Ardatz hau aztertu ostean, ondoriozta daiteke Oñati, Arrasate eta Bergarak dutela estaldura-mailarik handiena lan egiteko gune gisa eta, aldi berean, eskualdeko beste udalerrri batzuetako egoiliarren lanerako helburu gisa.

Parametro horiez guztiez gain, maila ertain-handiko enpresa ugaritan problema berri batekin egin dute topo. Enpresa-logistikarekin lotzen diren arazoak dira funtsean, produkzio-sistema osoan eragina dutenak, kanpoko osagaietan batik bat, hala nola, materialen hornikuntzan eta biltegiatzean eta amaitutako produktuaren banaketan.

Debagoieneko sarbide-baldintzak eskualde-mailako eta toki-mailako hainbat errepideren bitartez ebazten dira, baina errepide horiek korridore nagusiez baztertuta daude (A-8 autobideaz eta N-1 errepideaz). Arlo horretan, eskualdeko azken esku-hartzeak GI-627 errepidean (Maltzaga-Arlaban) hiri-saihesbideak eraikitzea eta GI-632 errepidearen (Kanpazar-Beasain) trazadura berriaren 10. fasea dira.


Debagoieneko zuzkidura-maila ona da, nahiz eta kirol, hotel eta atsedeneren arloetan hainbat gabezia antzematen diren. Gainera, zuzkiduren banaketa orekatua eta homogeneoa da.

Duela gutxi, Mondragon Unibertsitateak irakaskuntzari ekin dio, eta horrek Debagoieneko zuzkidura-eskaintzan jauzi kualitatibo handia eragin du, eremu funtzionalaren mailatik gorako eragina baitu.

Ingurune fisikoari dagokionez, adierazi behar da hiri-garapen tradizionalerako oso lurzoru egoki gutxi dagoela, eremu funtzionalaren azalera guztiaren %3,8 (1.600 ha) soilik baita erabilera horretarako egokia. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mailaren azpitik dago, Gipuzkoako batez bestekoa %5,5ekoa baita.

Azalera honetatik 725 ha (%1,75) haranen hondoetan dago, eta gainerako 865 ha (%2,1) malda leuneko eremuetan. Horrenbestez, 1.590 ha horietatik 802 ha okupatuta badago, teoriarik 788 ha-ko eszedentea dugu. Oñatiko harana izango litzateke, hasiera batean bederen, hartze-ahalmenik handiena duena, isurialdean dauden lurak alde batera utzita.

Eskualde honetan bereizgarria da landaren eta hiriaren arteko dualtasuna, 46 hirigune txiki dago barreiatuta eskualdearen lurraldean zehar.



GAUR EGUNGO LURRALDE ESKEMA
ESQUEMA TERRITORIAL ACTUAL

**SISTEMAREN OINARRIZKO INTERKONEXIOAK
INTERCONEXIONES BASICAS DEL SISTEMA.**




DEBAGOIENAKO ESKUALDEN EGITURA
AREA FUNCIONAL DEL ALTO DEBA.

AURREIKUSITAKO ESKUARTZEAK BIDESAREAN
INTERVENCIONES VIARIAS PREVISTAS

AURREIKUSITAKO ESKUARTZEAK TRENBIDESAREAN
INTERVENCIONES FERROVIARIAS PREVISTAS

TRANBIA
TRANVIA



GAUR EGUNGO LURRALDE ESKEMA
ESQUEMA TERRITORIAL ACTUAL

<p>LURRALDE EUSKARRIA SOPORTE TERRITORIAL</p> <p> NATURA ESPAZIOAK ESPACIOS NATURALES</p> <p> ARERAS DE ESPARCIMIENTO, AISIALDIKO EREMUAK</p> <p>ASENTAMENDU SISTEMA SISTEMA DE ASENTAMIENTOS</p> <p> ESKUALDE EGITURAKO BURUTZAK CABECERAS DEL AREA FUNCIONAL</p> <p> BESTE HIRIGUNE BATZUK OTROS NUCLEOS</p>	<p>HARREMAN SISTEMA. OINARRIZKO AZPIEGITURAK SISTEMA RELACIONAL. INFRAESTRUCTURAS BASICAS</p> <p> TRENBIDE SARE BERRIA NUEVA RED FERROVIARIA</p> <p> OINARRIZKO INTERKONEKIOA INTERCONEXIONES BASICAS</p> <p> BURUTZEN ARTEKO KONEKIOAK INTERCONEXIONES DE CABECERAS</p> <p> BESTE HIRIGUNEEN ARTEKO KONEKIOAK INTERCONEXIONES DE OTROS NUCLEOS</p> <p> TRANBIA TRANVIA</p> <p>LURZORU POLITIKA ETA EREdua ECONOMIA JARDUERETARAKO LURZORIAL MODELO Y POLITICA DE SUELO SUELOS PARA ACTIVIDAD ECONOMICA</p> <p> INDUSTRIA JARDUERAKO EREMUAK AREAS DE ACTIVIDAD INDUSTRIAL</p> <p> PT PARKE TEKNOLOGIKOA PARQUE TECNOLÓGICO</p> <p> PAI JARDUERA BERRITZAILLETARAKO PARKEA PARQUE DE ACTIVIDADES INNOVADORAS</p> <p> RM ERAKUSKETA ARETOA RECINTO DE MUESTRAS</p>	<p>BIZITEGI LURZORUAK SUELOS RESIDENCIALES</p> <p> HIRIA INDARTZEKO ERKU HARTZE ESTRATEGIKOAK (ESKUALDEKO OREKA BERRIA) INTERVENCIONES ESTRATEGICAS DE POTENCIACION URBANA (REQUILIBRIO COMARCAL)</p> <p> HIRIA INDARTZEKO ERKU HARTZE ESTRATEGIKOAK (AZPIESKUALDEKO OREKA BERRIA) INTERVENCIONES ESTRATEGICAS DE PROTECCION URBANA (REQUILIBRIO DE SUB-COMARCA)</p> <p> HA HABITAT ALTERNATIBOA HABITAT ALTERNATIVO</p> <p> EKIPAMENDU ETA ZERBITZUETARAKO LURZORUAK SUELOS PARA EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS</p> <p> ESKUALDE BURUTZEN INTERKONEKIOA DIBUKAZIOKO IZAERADUN AZPIEGITURAK INTERCONECTOR DE CABECERAS DE COMARCA IMPLANTACION DE INFRAESTRUCTURAS, EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS DE CARACTER DIRECCIONAL</p> <p>HIRI ETA LANDA ARLOKO BIRKUALIFIKATZE ERAGIKETAK OPERACIONES DE RECUALIFICACION URBANA Y RURAL</p> <p> T HIRI ARLOKO BIRGAITZE ERAGIKETAK RENOVACION URBANA</p> <p> R ALDE ZAMARREKO BIRGAITZE INTEGRALA REHABILITACION INTEGRAL CASCO HISTORICO</p> <p> NAT LURRALDEARAKO SARRERAGUINEAK NUCLEOS DE ACCESO AL TERRITORIO</p>
--	---	---

2.2.- Garapenerako helburuak

Hasteko aintzat hartu beharko genuke eskualdeak EAeko hirien sisteman betetzen duen zeregina, baita Erkidegoa bera kokatzen den hurbileko lurraldeak betetzen duena (Arku Atlantikoa, Europako Iparraldea-Hegoaldea ardatza...) eta Europako Zentraltasuneko Nodo gisa duen konfigurazioak betetzen duena ere (ERROTULA HANDIA). Hori guztia lurralde-eredu bateratuaren ikuspegitik ezarri beharko litzateke, hainbat udal-plangintza biltzearen ondoriozko "eredua" gaindituz.

Ildo horretan, eta protagonismo artifiziala lortu nahi gabe, nabaria da Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako erlazio-sisteman aurreikusten diren esku-hartze berriek lurralde zentraltasun funtzionala esleitzen diotela Debagoieneko eskualdeari, eta hala orain arte baztertuta zegoen lurraldea birkualifikatzen dela.

Gune Anitzeko Euskal Sisteman parte hartzeko aukera hori, ordea, kokapen geografiko estrategikoaz gain, oinarrizko beste aldagai baten mende dago. Behar besteko tamaina funtzionala lortu beharko du gaur egungo maila gaindituko badu eta, hala, erlazio eta osagarritasuneko eskema orokorraren barruan zeregin egituratzailea beteko badu.

Debagoiena gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen hiri-eragin gurutzatuaren eraginpean dagoen eremu teinkatua da, eta, sistemaren oinarrizko konexioak hobetuz gero, etengabeko fluxu erregresiboa sor daiteke maila guztietan.

Izatez, dagoeneko saldo migratorio (1996-1999) negatiboa antzematen da eskualdean, -179 biztanleko saldo negatiboa hain zuzen ere. Zirkunstantzia horrek bertan bizi ez direnen aldeko lanpostuen eszedenteen gehikuntza argitzen du, zati batean bederen.

Debagoieneko eremu funtzionala mehatxatzen duen arriskurik handiena biztanleen emigrazioa da.

Hirien sisteman hirien maila ezartzeko erabilitako eskema teorikoa zabalduz eta unitate kohesionatua itxuratzeko lurraldearen muga fisikoak kontua izanik, "laugarren hiria" itxuratzea hartzen dugu "helburu" gisa. Helburu horretan Debagoienak ez ezik, Durangaldeko eta Debabarreneko eremu funtzionala mugakideek ere parte hartu beharko dute, baita Arabako lurraldearen zati batek ere (Legutio, Urbina, Luko...). Izan ere, lurraldearen ezaugarrien ondorioz behar-beharrezkoa den osagarritasuna gauzatu beharko da.

Helburu hori lortuko bada, Debagoienak deszentralizazioa sustatu beharko du hiri-bilbe orekatuaren barruan; era berean, hirien arteko lankidetzaz eta mendekotasuneko sarearen antolamendua sustatu beharko du.

Tamaina funtzionala berriro dimentsionatzeko dinamika horretan, honako helburu demografikoak eta sozio-ekonomikoak planteatu ditugu:

- Lehenik, aztergai dugun lurralde-antolamenduko lan honen gisako lan baten ahalmena eta zeregina gainditzen duen helburu sozio-kultural bat jaso behar dugu. Horretarako, lurralde-nortasunari dagokionez, "proiektu-nortasuna" izenda dezakegunaren garrantzia adierazi behar da. Izan ere, eremu funtzionalaren bereizgarri izan den hasierako "erresistentzia-nortasuna" izan daiteke abiapuntua, ondoren sozietate orokorrean nagusi den logikan integratutako interes multzo bihurtzeko. Erresistentziako fasea gainditu ostean, nortasuna sortu beharko litzateke, eta nortasun horrek gai izan beharko luke espazio edo leku "berri" batean beste gizarte bat eraikitzeko. Izan ere, informazioaren aroan gizartearen gaineko nagusitasuna zehazten duen "lekurik gabeko logikaren" eta "fluxuen espazioaren" ondoriozko arrisku handiari aurre egin ahal izateko, memoria historikoa eta bere balioak bildu beharko litzuzke. Horretarako, proiektuko ekimen berriekin batera (Unibertsitatea, Garaia...), bizitegi-ekimenak, aisialdirako zuzkidura-ekipamenduak eta abar bideratu beharko dira. Gizarte berri bat sortzeko ezinbestekoa izango da produkzio-erlazioetan, botere-erlazioetan eta esperientzia-erlazioetan egitura-aldaketa antzematea. Eta dagoeneko gertatu da produkzio-erlazioetako aldaketa hori. Transformazio horien ondorioz aldaketa nabarmena gertatzen da espazioaren eta denboraren formetan eta beste kultura bat agertzen da.
- Aurreikusten den oinarrizko konexioen erlazio-sistemaren egitura osatzea (Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango autobia), eskualde mailako konexioak hobetuz (sare nagusia) eta sare osagarrien eta tokikoen mailako konexioak hobetuz.

Azpiegiturako jardun horiekin batera garraio publikoko sistema egokia gauzatzea eta beronek zerbitzu egiteko beharrezko azpiegiturak ezartzea proposatzen da (aparkalekuak, garraio-zentroa, autobus-geltokia...).
- Gaur egun dagoen biztanleriaren dimentsioa abiapuntu izanik (64.500 biztanle), 70.000 biztanle inguruko ahalmen demografikorako beharrezko mekanismoak garatu nahi ditugu 16 urteko lehen horizonte horren barruan, nahiz eta erabilitako hazkunde-aukerek biztanleria gehitzea aurreikusten ez duten. Biztanleria

gehitzeko aukera prezio kontrolatuko etxebizitzak kudeatzeko politikaren ondoriozkoa izango da, baita gizartean erakargarritasuna areagotuko duten elementuak sortzearen ondoriozkoa ere (lanaren, kulturaren, ingurumenaren, aisialdiaren, zerbitzuen eta beste Alderdi batzuen arloan). Horrek guztiak eragingo du gaur egun eremu funtzionalaren barruan lan egiten edo ikasten duen kanpoko jendea bertara bizitzera etortzea. Dena den, hazkunde demografikoa goian aurreikusitakoa baino %6 baino handiagoa izango balitz, Agiria berraztertu egin beharko litzateke hazkunde horrek Planean finkatutako lurralde-ereduari nola eragiten dion ikertzeko.

- Aurreikusten den biztanle-kopuruarentzako etxebizitza-politika egokia garatzea. Bizitegi-tipologia berriak sustatuko dira jendea erakartzeko (hirigune historikoak birgaitzea, dentsitate txikiko etxebizitzak...). Bermatu egingo da prezio tasatua duen etxebizitzaren eskaintza (babes ofizialekoa) edo etxebizitza premiazko produktu gisa bermatuko duten prezioa kontrolatzeko beste modu batzuk.
- Inguruko ekonomia-jarduera tradizionalen garapen jasangarria sustatzea, industriaren kualifikazio berria sustatuz eta hirugarren sektoreko jardueretako alternatibak bultzatuz. Hortaz, azalera-ahalmen handiagoa duten lurralde mugakideetan kokatu beharko dira instalazio estentsiboak eta, horretarako, produkzio-zentroen eta zentro logistikoen arteko beharrezko lankidetzamekanismoak ezarriko dira. Garaia planaren gisako ekimenak eskualde-mailako beste esparru batzuetara zabaltzea.

2.3.- Lurralde-eredua

2.3.1.- Ingurune fisikoa

Arrasate Bergarako Lurraldearen Zatik Planaren (Debagoiena) abiapuntua Debagoieneko ingurune fisikoak eskaintzen dituen aukerei eta eskualdeak dituen arazoei aurre egitean datza. Ingurumenaren balioak eta berezitasunak lurralde-eredua osatzeko funtsezko elementuak dira, eta herritarren bizi-kalitaterako bermea dira.

Proposatzen den lurralde-ereduak lurraldearen balio ekologikoak, produktiboak, paisajistikoak eta zientifiko-kulturalak gordetzeko estrategia finkatzen du. Lurzoru urbanizaezina erabiltzeko modua adierazten du, eta, aldi berean, lurzorua garapenerako aukeratzat hartzen du, bizitegi-jarduera eta zuzkidura-jarduera berritzaileagoak eta erakargarriagoak kokatzeko eremua baita.

Definitu den ereduak honela banatzen du lurzorua:

- Natura-intereseko eremuak
 - Babestutako natura-espazioak
 - Interes naturalistikoko eremuak
 - Beste zenbait enklabe interesgarri
- Nekazaritza-intereseko eremuak
- Interes hidrologikoko eremuak
 - Lur gaineko urak: ibaiak – errekek – beste ibaiadar batzuk
 - Lurpeko urak
 - Hezeguneak
- Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak
- Hobetu eta berreskuratzeko eremuak
- Lurraldearen gainerakoa

Horiek guztiek interes berezia dute eta guztiek osatzen dute hiri-garapenez eta garapen urbanizagarriaz babestu beharreko eremua.

Halaber, balizko bizitegi-garapenekiko bideragarritasuna ezarri da:

- Barreiatutako landaguneak

Atal honetan kontraesankorra eman dezakeen arren, ingurune fisikoa funtsezko giltzarria izan da gaur egungo hiri-zibilizazioa itxuratzeko.

Ebidentzia hori abiapuntu izanik, eskualde honetarako proposatu dugun birkualifikazioko funtsezko helburua lortzeko, “esploratzaileen” zeregina geureganatu beharko dugu berriro eta beste “kolonizazio” bat proposatzeko natura-inguruneak duen gaitasuna berraztertu beharko dugu, betiere eskualdearen ahalmen soziala eta kulturala mantentzeko helburuei eutsiz.

Eskualdea berriro interpretatu beharko da, oraingoan hiri bakar baten modura hartu beharko da eta baztertu egin beharko dugu gaur egunera arteko hirien baturaren ikuspegia. Horrela, ideia hori benetan gauzatzeko, urbea “berriro sortu” beharko dugu eta kolektibo berri hau identifikatu ahal izango duten elementu sozio-kulturalen kokapena eta funtzioa finkatu beharko dugu.

Gizarte-ohiturak aldatzeko prozesuak eskatuta, aisialdian sortzen diren arazoak aztertu beharko dira. Lanak edo produkzioak baditu berriro egokitzeko

mekanismoak, interes korporatiboek hala exijitzen dute-eta. Hala ere, aisialdi asean garatzeko egin beharreko banako ekintzak behar-beharrezkoa du alde aurretik antolamendu kolektiboa egitea, baita talde gisa ordezkatzeko gaituzten organismoen esku-hartzea ere. Hemen, hain zuzen ere, “inbertitu” beharko ditugu gure baliabideak.

2.3.2.- Gune Anitzeko Sistema

Hirien gune anitzeko sisteman integratzen den bitarteko hiri “berria” itxuratzeko, eremu funtzional honetako hiru azpieroak kohesionatu beharko dira (Bergaldea, Oñati eta Leintz-Aramaio) eta hori hiru burutzetan oinarrituta egingo da. Guztiak eskualdeko burutzak lotuko dituen San Prudentzioko “interkonektorearen” bitartez egituratuko dira. Gainera, “norabide” izaerako azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak ezarriko dira.

Kokalekuen sistema irisgarritasunean egituratzen da, eta errepide-sare nagusiaren erlazio-sistemak gaineratzen du hurbielarratasun edo irisgarritasun hori Deba haranean eta Oñatiko haranean.

Horrenbestez, lurzoru-aukera handiagoak eta lortu nahi den oreka berriaren indarrez, izaera selektiboko hazkundeak Oñatirantz eta Antzuola eta Elgetako hiriguneetarantz bideratu nahi ditugu. Oñatirantz bideratuko direnak eskualde-mailakoak izango dira, eta Antzuola eta Elgetako hiriguneetarantz bideratuko ditugunak Bergaldeko azpieskualdekoak izango dira.

2.3.3.- Harreman-sistema

Gaur egun eskualdea bereizten duen biztanleriaren eskualde-nortasuna enpleguaren eta bizitegiaren arteko erlazioaren ondoriozkoa da. Eskualde barruko barne-fluxuen maila handia sortu da, gero eta handiagoa den kanpoko-barruko fluxuen aurrean. Eremu funtzionaletik irteteko edo bertara sartzeko sarbideetan egin beharreko esku-hartzeek ahalegin berezia eskatzen dute barruko komunikazioa hobetzeko, betiere gaur egungo orekari eutsi nahi bazaio (gabeziaren edo isolamenduaren ondoriozko oreka bada ere).

Lurralde-ereduan etorkizuneko komunikabide-sarearen hiru esku-hartze nagusiak barne hartzeaz gain (autobidea, autobia eta trenbidea), lurraldeari zerbitzu egingo dioten lau eskualde-maila osatu nahi dira.

- Banaketa sare nagusia

- interkonexioa
- garapenarekin bateragarria
- Tokiko sarbide-sarea
 - interkonexioa
 - hiri-zeharbidea
- Tokiko sarbide-sare sekundarioa
 - garapen berriak
 - landaguneetarako sarbidea
- Hiriarteko ibilbide bereziak (oinezkoentzako zirkuituak eta bidegorriak)

Ildo horretan, eta trafikoak arautzeko eta garraiorako zerbitzuak egiteko, hainbat azpiegitura xedatu dira:

- Epeleko garraio publikoko zentroa (trenbide-tranbia garraiorako instalazio osagarriak)
- Bergaran errepidean zeharreko garraiorako zentroa. Elkoromunio-Ipiñarri
- Aparkaleku gomendatuak

Elorregiko ingurunea, Epele, Zubillaga, Elkoromunio-Ipiñarri, hiru azpi- eskualdeen batasunaren eta harreman-sistemaren zentro neuralgiko sinbolikoa da. Elorregik eremu funtzionalaren meeting-point bihurtu behar du bere ahalmen fisikoari esker (espazio-leheneratzea); harrera, informazio eta garraio-trukerako zentroa izango da. Bestalde, barne-garraioko zerbitzuan planteatzen den birkualifikaziorik garrantzitsuena tranbia-azpiegitura berrian oinarritzen da.

2.3.4.- Lurralde-ereduak lurzoruaren politikan izango dituen eraginak

Lehentasuna duten industria-jarduerako eremuek jasotako posizioa mantentzen dute, beren dimentsionamendua lurzoru tradizionaletan (haranen hondoetan) osatzen da, eta beren garapena eskualdeko hiru burutzen inguruetan osatzen da.

- | | |
|--------------------|----------------|
| - San Joan harana | Bergaraldea |
| - Garagarza harana | Arrasate-Leniz |
| - Oñati harana | Oñati |

Ingurumenaren eta egituraren arloan kalitate handieneko kokapenetan hiru kalitate-kontzeptu berri sartu dira:

- Eskoriatzako Jarduera Berritzaileen Parkea

- Olandixo-Garaiko Berrikuntza Ardatza (Arrasate). Garagaltza-Berezaoko Berrikuntza Ardatza (Oñati)
- Poligono estrategikoak. Deskarga (Antzuola). Elkoromunio (Bergara). Zaraa-Montzon(Arrasate).

Hiri tradizionalen garapen jarraituari eutsiz, bizitegi-hazkunderan erakarpen-elementuak bilatzeko lehen urrats irmoa proposatzen da.


Bizitegi-tipologia alternatiboko aukerak dituzten hiriekin lotzen diren zenbait esparru proposatzen dira, natura-esparrura hurbildu ahala intentsitatea murrizten duen etengabeko gradazio batean.

Eskualdeko landaguneen eraikuntza-garapen kontrolatuaren ahalmena mantentzen da.

2.3.5.- Udalerrien eginkizuna

Lortu nahi dugun hiri bateratuaren kontzeptua abiapuntu izanik, Debagoieneko eskualdea osatzen duten udalerrietako bakoitzak eginkizun osagarria betetzen du eskualdean.

- Eskualdearen burutza
 - Bergara, Arrasate, Oñati
Hiru burutzen bateratze deszentralizatua eta solidarioa lortu nahi da, baterako garapen jasangarria gauzatuz.
- Beste gune batzuk
 - Antzuola, Elgeta (Bergaldea)
 - Aretxabaleta, Eskoriatza (Leintz Bailara)
Azpieskualdearen bizitegi-aukera berriak osatzen dituzte.
 - Leintz Gatzaga - Aramaio
Lurraldeko sarreragune gisa itxuratzen dira, betiere ahalik eta aukerarik zabalenetan.



PROPOSATUTAKO LURRALDE ESKEMA
ESQUEMA TERRITORIAL PROPUESTO

**SISTEMAREN OINARRIZKO INTERKONEXIOAK
INTERCONEXIONES BASICAS DEL SISTEMA.**

-  **E.A.Eko HIRI SISTEMA
SISTEMA DE CIUDADES DE LA C.A.V.**
-  **ESKUALDE HIRIAK
CIUDADES REGION**
-  **ESKUALDE EGITURAREN BURUTZEAK
CABECERAS DE AREAS FUNCIONALES**
-  **HIRI-SISTEMARAKO SARRERA
INCORPORACION AL SISTEMA DE CIUDADES**
-  **TENTSIOAK
TENSIONES**



**EGUNGO SARE NAGUSIA
RED GENERAL EXISTENTE.**



**AURREIKUSITAKO ESKUARTZEAK BIDESAREAN
INTERVENCIONES VIARIAS PREVISTAS**




**AURREIKUSITAKO ESKUARTZEAK TRENBIDESAREAN
INTERVENCIONES FERROVIARIAS PREVISTAS**



**TRANBIA
TRANVIA**



**DEBAGOIENAKO ESKUALDEN EGITURA
AREA FUNCIONAL DEL ALTO DEBA.**



PROPOSATUTAKO LURRALDE ESKEMA
ESQUEMA TERRITORIAL PROPUESTO



**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

1.- INGURUNE FISIKOA

1.- HELBURUA

Debagoieneko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plan honen helburua, ingurune fisikoari dagokionez, oinarrizko dokumentu bat lantzea eta eskaintzea izango da, ondoren esparru horretako zonifikazio xehekatua ezarriko duten izaera orokorreko udal-planak oinarrizko dokumentu horren arabera idazteko. Proposatutako antolamenduak gainditu egiten du ingurumen-baldintza hutsa eta lehentasuna ematen dio lurraldearen joerari, lurralde-ereduak eskatzen dizkigun premien arabera beti.

2.- AURRETIAZKO IRITZIAK

Helburu hori argi eta garbi finkatuta, honako premisak eta iritziak hartu dira aintzat berau idazteko:

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) dira ingurune fisikoari dagokionez mailarik handieneko erreferentziazko plangintzako dokumentua.

Debagoieneko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren Aurrelaburpenak ez zuen espazio honen errealitatea jasotzen ingurune fisikoari dagokionez, aurretiazko txostenetan jasoarazi zen moduan.

Lurralde-esparru bakoitza bakarra eta errepikaezina da eta, hori dela eta, berau behar bezala antolatu, zonakatu eta planifikatzeko behar-beharrezkoa izango da, inolako zalantzarik gabe, lurralde-esparru horren berezko balioak eta berezitasunak zehatz-mehatz ezagutzea.

Lurraldea multzo dinamiko bat da eta, ondorioz, aldatu egiten da denboraren poderioz. Beraz, lurraldearen analisiak eta diagnostikoak dokumentua idatzi zen uneko abiapuntuko egoerari erantzun beharko diote.

Lurraldeak bere osotasunean hainbat balizko balio eta erabilera dituen arren, erabileren lehiaren eraginez –eremu funtzional horretan duela mende batzuetatik hona ageri dena–, nekazaritzaz, abeltzaintzaz eta baso-lanez aparteko erabilerek lurraldeko zenbait eremu hartu dituzte. Hortaz, kontserbatu eta gordetzeko interesa duten balioak finkatu behar dira espazioan.

Lurraldearen berezko ezaugarriak ezagutzea funtsezkoa izango da baimen eta/edo onar daitezkeen erabilerak definitzeko eta/edo lurralde horrekin bateraezinak diren erabilerak definitzeko. Kasu batzuetan, gainera, espazioaren gaineko ezagutza horren ondorioz, lurraldearen joerarekin egokiak edo zuzenak ez diren erabilerak deuseztatzeko jardun-ildo zehatzak ezar daitezke.

Hasiera batean, lurraldean antzemandako berezitasunak mantentzeak eta kontserbatzeak ez du esanahi kontserbatu behar diren balioak aldatzen ez dituzten erabilerak bertan koka daitezkeenik.

Arreta berezia jarri beharko zaie gorde beharreko balio bat baino gehiago dituzten lurraldeko eremuei, eremu horiek beste espazio batzuek baino berariazko ahalmen handiagoa baitute.

Aztergai dugun esparruaren eskala egoki definituta dago; batetik, eremu funtzionalaren esparruaren mailako erreferentziazko elementuak ezarri eta finkatu behar ditu, eta, bestetik, udal-mailako plangintza bat dagoela eta plangintza horrek lurraldea maila xehekatuagotik aztertuko duela hartuko du aintzat.

Horrenbestez, dokumentu honen helburu zehatza, ingurune fisikoari dagokionez, Debagoieneko eremu funtzionaleko ingurune fisikora hurbiltzea izango da. Horretarako, ingurune fisikoarekin zuzenean edo zeharka duten erlazioarengatik, aldagairik esanguratsuenen analisia hartuko da abiapuntu, hau da, espazioaren osotasunaren erabilera eta, ondorioz, lurralde-antolamendua baldintza dezaketen aldagairik esanguratsuenen analisia hartuko da abiapuntu. Azken finean, intereseko elementuak dira.

Honakoak dira bereziki fase honetan kontuan hartu diren aldagaiak: Debagoieneko eremu funtzionaleko lurraldearen landaredia, baliabide hidrologikoak, lurzoruen ahalmen agrologikoa eta balio geologikoak eta geomorfologikoak. Horrek guztiak ez du eragozten udal-plangintzek xehetasun handiagoko beste irizpide batzuk –esate baterako, landa-garapenari buruzko 10/1998 Legean eta bere garapen-programetan aintzat hartzen den landatasuna– aintzat hartu behar ez dituztenik, Debagoieneko lurraldearen osotasunaren antolamendu osoa lortzearen.

3.- LURRALDEAREN KATEGORIZAZIOA

Aldagai horien azterketan eta analisisian oinarriturik, lurraldea honako kategorietan banatu da:

1.- Natura-intereseko eremuak:

1.1 Babestutako natura-espazioak (parke naturalak, biotopo babestuak, zuhaitz bereziak eta Natura 2000 sarea)

- URKIOLAKO PARKE NATURALA
- AIZKORRI-ARATZEKO PARKE NATURALA
- UDALAITZ
- Eskoriatzako sekuoia
- Gaztainondoa eta pinua (Aretxabaleta)
- Monterron parkeko sekuoia (Arrasate)
- Zumar hostozabala (Oñati)
- Elorri zuria eta gorostia (Oñati)
- Bergarako magnolioa

1.2 Interes naturalistikoko eremuak

- GOROSTIAGA EDO SATUI - ARROLAMENDI
- IRUKURUTZETA – SORUS – ITXUMENDI – GORLA - TREKUTZ
- ALBINAGOIKO PAGADIA

1.3 Beste zenbait enklabe interesgarri

2.- Nekazaritza-intereseko eremuak

3.- Interes hidrologikoko eremuak:

- 3.1 Lur gaineko urak (Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana)
- 3.2 Lurpeko urak Akuiferoen babesa.
- 3.3 Hezeguneak

4.- Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak

5.- Hobetu eta berreskuratzeko eremuak.

Eremu horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak labur-labur zehazten dira ondoren:

1.- Natura-intereseko eremuak

Beren interes ekologiko, botaniko, faunistiko, paisajistiko eta kasu batzuetan interes paleontologiko eta arkeologikoaren ondorioz zaindu eta gorde behar diren espazioak dira. Nagusiki ondo kontserbatuta dauden bertako basoak (pagoak eta haritzak) eta galeria-zuhaiztiak (haltzadiak) dira, baita utzitako basoen zati isolatuak (artadiak eta ameztiak) eta ihitokiak ere. Kartografiatutako zuhaiztiak 1997ko airetiko argazkian oinarrituta eguneratu dira (apirileko hegaldia 1:18.000 eskalan eta irailekoa 1:40.000 eskalan).

1.1 Babestutako natura-espazioak

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako irizpideei jarraituta, naturaltasun-maila handia mantentzen duten Debagoieneko eremu funtzionaleko espazio bereziak Urkiola eta Aizkorri-Aratz dira. Biak EAeko Babestutako Natura Espazioen Sarean barne hartzen dira. Oro har, espazio bereziak eta ahulak dira.

Lehena abenduaren 29ko 275/1989 Dekretu bidez izendatu zuten Parke Natural eta bere plangintza propioa du, *Urkiolako Natura Baliabideen Antolamendurako Plana*, otsailaren 22ko 102/1994 Dekretua. Dokumentu honetan aintzat hartzen den mugapena dekretu horretan ezartzen diren mugetara egokitzen da.

Aizkorri-Aratzeko eremuaren Natura Baliabideen Antolamendurako Plana oraindik onartzeko dago; hortaz, eremu honen mugapena dokumentu hau idatzi duen taldeak berak finkatu du. Dena den, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazten diren mugetara hurbiltzen da, dagoen landarediari dagokionez aldaketa txikiren bat egin bada ere.

Planak honako esparrua gaineratu nahi du kategoria honetan:

- Udalaitz: balio paisajistiko, geologiko, faunistiko eta botaniko handia duen lurralde-eremu berezia da

1.2 Interes naturalistikoko eremuak.

Parke Naturalek baino espazio-garrantzi txikiagoa duten arren, beren balio naturalistikoagatik eta paisajistikoagatik kontserbatu eta babestu behar diren espazioak biltzen dira azpi-kategoria honen barruan. Esate baterako:

Irukurutzeta – Sorus – Itxumendi – Gorla - Trekutz
Gorostiaga edo Satui - Arrolamendi
Albinagoiko pagadia

Dokumentu honetan Irukurutzeta-Trekutz mendilerroa Irimorantz (Goierriko eremu funtzionalean) luzatzeko aukera hartu da aintzat.

1.3 Beste zenbait enklabe interesgarri.

Azpikategoria honetan barne hartzen diren eremuak ikuspuntu naturaletik (ikuspuntu botaniko eta faunistikotik, bereziki) berezitasunak dituzte eta isolatuta daude, beren artean loturarik gabe. Bertako balioak kontserbatzeko arriskurik ez duten jarduerak soilik baimentzen dira bertan. Honako esparruak bereizi dira:

a) Ondo kontserbatutako eta garatutako haltzadiko ibai-ekosistema klimatikoak. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren osotasunean oso urriak dira mota honetako ekosistemak, eta horretan datza, hain zuzen ere, esparru horien garrantzia. Nagusiki honako ibai hauen ibilguan topatzen ditugu:

1. Deba, sorburutik Eskoriatzaraino, Maringo hirigunea zeharkatzen duen eta ezkerretik urak isurtzen dituen ibaiadarra barne.
2. Araotz-Arantzazu
3. Iñola
4. Olaeta
5. Urkiola (Araba Erdialdeko eremu funtzionalarekin muga egiten duena)
6. Era berean, arreta berezia merezi dute Urkulu, Aixola, Albina eta Urrunagako (Arabako Erdialdeko eremu funtzionalean) urtegietako arroetako ibai-ibilguez.
7. Inguru Hezeak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean aipatzen edo barne hartzen ez diren beste batzuk: Albistegiko presa, Jasokundeko putzua, Aranburuko putzua eta Antoñerreka presa.

b) Landaredia bereziko eremuak (ihitokiak, zingirak eta abar), Urkulu eta Albinako urtegietan, bereziki, urez betetzen diren sakonuneei lotuak.

c) Eremu funtzionalean zein Gipuzkoako Lurralde Historikoan oso urriak izateagatik interesa duten zuhaitz espezieez osatutako zuhaitzi txikiak. Horien artean Aramaioko artadiak eta Aramaioko eta Leintz Gatzagako ameztiak daude. Lehenak zehazki gorde behar diren eremutat hartzen dira Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen hasierako onarpeneko dokumentuan.

d) Interesa eta berezitasuna duten bertako zuhaitzez osatutako zuhaitzi isolatuak (pagadiak, hariztiak eta baso misto atlantikoak). Zuhaitzi horien interesa eta berezitasuna bi arrazoitan datza: batetik, lurraldearen landaredia-ahalmenaren adierazgarri dira eta, bestetik, beren hedadurak ez du zerikusirik koniferoen (pinuen) baso-sartzeek okupatzen dituzten azalera handiekin, horixe baita, azken finean, Debagoieneko paisaia humanizatuan nagusi dena. Zuhaitzi horietako gehienak, orokorrean, kontserbazio-egoera onean daude eta, nagusiki, eremu funtzionalaren ipar-ekialdean (nagusiki Antzuolan) eta hego-mendebaldean (Aramaion, Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan) daude.

2.- Nekazaritza-intereseko eremuak

Kategoria honen barruan Debagoiengan ahalmen agrologiko handiena duten lurzoruak barne hartu dira, hau da, nekazaritza-produkziara eta landa-ingurunean nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak mantentzera zuzentzen diren lurrik emankorrenak barne hartu dira. Aztergai dugun kasu zehatz honetan, eremu horiek ez dira mota jakin bateko lurretan kokatzen, *balio agrologiko handiko* lurrak izan daitezke, hau da, laborantza etengabe edo sistematikoko ustiapen-sistemekin landu daitezkeen lurrak izan daitezke. Haatik, nekazaritza-aprobetxamendurako *muga iraunkorrak* dituzten eta, hortaz, nekazaritza-helburuz erabiltzeko hobekuntzak behar dituzten lurrak ere izan daitezke. Lehenak ibai-ibilgu nagusietan zehar kokatzen dira (lur alubialak) eta bigarrenak erliebe leun, muino eta aldapa handi samarreko mendi-mazeletan. Nekazaritza-ahalmenik handiena duen eremua Aramaion dago, Iñola eta Olaeta ibaien haranetan.

Muga iraunkorrak dituzten lurzoruak nekazaritza-irizpideengatik babesteko hainbat arrazoi dago:

Debagoiengan ez dago ahalmen agrologiko handiko lurzoru askorik, lurzoru horietako asko desagertu egin da hiri-presioaren ondorioz (bizitegi-erabilerak, industria, ekipamenduak, azpiegiturak eta abar) eta, bestalde, nekazaritzaz bestelako erabileren presioa handia duten lurzoru libre urri dago.

Muga iraunkorrak dituzten lur horien inguruan eraikuntza isolatuak (baserriak) kokatzen dira eta, ondorioz, lur horien aprobetxamendu intentsiboa gertatu da. Ustiapen horiek nekazaritza-erabilerak (baratze-laborantza eta bazka-laborantza) belardiekin txandakatzen dituzte.

Atal honekin amaitzeko, adierazi behar da, balio agrologiko handiko lurzoruen babesa eta kokapenari dagokionez, eremu funtzionalaren osotasunean argi eta garbi bereizten diren bi egoera daudela:

Lurraldearen gehiengoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan barne hartzen denak, ez dun ia mota horretako lurrik.

Aramaio inguruan ahalmen agrologiko handiko lurzoru-erreserbak daude (lurzoru nagusiki alubialak).

3.- Interes hidrologikoko eremuak

Baliabide hidrikoen kontserbazioak urtegiak, ibaiak, errekek eta akuiferoak babestea eskatzen du, beren aldaketa kualitatiboa eta/edo kuantitatiboa eragin dezaketen erabilera eta jardun guztietatik babestu behar dira. Ibai-ibilguen kasuan, ubideen eta urbazterren okupazioa eta aldaketa saihestu nahi da, eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak murriztu nahi dira.

3.1. Lur gaineko urak (Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana)

Urtegien kasuan babesa ez da urtegia bera babestera mugatuko, urtegiako arro osoaren azaleraren babesa hartuko da aintzat, hau da, arroa osatzen duten erreka eta erreka guztien babesa ere hartuko da kontuan. Ildo horretan, adierazi behar da Debagoieneko urtegiak Urkulu, Albina, Aixola eta Urrunaga direla (Iñola, Olaeta eta Urkiola ibaiak Araba Erdialdeko eremu funtzionalean dagoen azken urtegi honetara isurtzen dituzte urak).

Isurialde kantauriarrean zein mediterraniarrean urak isurtzen dituzten eremu funtzional honetako ibaien eta erreken babes-zerrendei dagokienez, Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planetan ezartzen denari jarraitu beharko zaio. Dena den, dokumentu honetan bertako ibai-sarea hainbat mailatan sailkatu da:

Deba ibaia

Oñati, Deskarga, Ubera, Angiozar eta Aramaio errekek

Gainerako errekek, Elosua, Askorta, Iru, Abrain, Arane, Asalditxo, San Martin edo Bustintegi, Bolibar, Belastegi, Epele, Beneras, Aspitiko, Zapata, Antoña, Baskolia, eta abar.

3.2. Lurpeko urak (hidrogeologia)

Baliabide hidrikoen babesak akuiferoak kargatzeko eremuen babesa ere hartzen du aintzat. Are gehiago, arreta berezia jarriko da iragazkortasun-maila handia duten

eremuetan, jarduera jakin batzuk bertan ezartzeak akuiferoak kutsatzeko arriskua handia izan dezake-eta. Hortaz, lurpeko baliabide hidrikoak ez ezik, lur gainekoak (akuiferoetako oinarritzko fluxuak) ere babesten dira, baita baliabide horien alderdi kualitatiboak eta kuantitatiboak ere (ur-erazketak). Aztergai dugun eremuan esparru horiek kare-harrizko materialekin, dolomiekin, konglomeratuekin eta material alubialekin lotzen dira.

Debagoieneko eremu funtzionala hegoaldeko antiklinorioaren domeinu hidrogeologikoaren barruan kokatzen da eta, neurri txikiagoan, Koaternarioko domeinu hidrogeologikoan. Lehena behe-kretazeoko kare-harri arrezifalekin lotzen da, eta material horiek bereizgarri dira Aramotzeko unitate hidrogeologikoan (Udalaitz eta Aramotz-Anbotoko azpi-unitatean) eta Aizkorriko unitate hidrogeologikoan (Jaturabe, Urbaltza, Arantzazu, Ubao eta Iritegiko azpi-unitateetan). Dagokion mapan ikus daitekeen bezalaxe, oso kokapen zehatza dute eremu funtzionalaren hegoaldean eta mendebaldean.

Koaternarioko domeinu hidrogeologikoa, berriz, material alubialetan finkatzen da eta Arrasateko ingurunean (Deba eta Aramaio ibaien ibilguan) eta Aramaion (Iñola eta Olaeta ibaien ibilguan) kokatzen da.

3.3 Hezeguneak (Inguru Hezeak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren arabera)

- Urkulu urtegia (Aretxabaleta)
- Aixolako urtegia (Elgeta)
- Araozko urtegia (Oñati)
- Albistegiko presa (Elgeta)
- Albinako urtegia (Aramaio)
- Jasokundeko putzua (Elgeta)
- Aranburuko putzua (Oñati)
- Oletako landetxeko putzua (Aramaio)

4.- Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak

Atal honetan beren balio geologikoengatik eta/edo geomorfologikoengatik nabarmendu behar diren espazioak barne hartzen dira (harkaitz-azalaramenduak, prozesu karstikoak, azaleko formazioak, material bolkanikoak, eta abar). Eremu horiek prozesu jakin batzuen adierazgarri izateagatik edota lurraldean oso kokapen zehatza izateagatik nabarmendu behar dira. Honakoak dira eremu edo gunek interesgarri horiek:

- Eguarbizta haitza
- Ugarriaga-Azpikoko faila eta bretxa tektonikoa
- Udalako konplexu karstikoa
- Arantzazuko harana-Zañartu
- Maringo lerradurak

Leintz Gatzagako lerradura anitzak
Kurutzabarriko aldapa
Orkatzategiko aldapa
Jaturabel-Araotzeko arroila karstikoa
Aloñako aldapa
Gesaltza-Zelaizabalgo hobia
Arlabango alubial esekia
Degurixako dolina
Biozkorniako dolina
Alabitako dolina
Aizkorriko konplexu karstikoa
Arrikruzeko haitzuloa

Udal-plangintzak gune interesgarri horiek hartu beharko ditu kontuan, eta, lurralde-antolamenduaren ikuspegitik, baloratu egin beharko du balio hori alda edo ezaba dezaketen beste erabilera batzuekin bateragarriak edo bateraezinak diren. Horri dagokionez, Marin eta Leintz Gatzagako irristatzeak mendi-mazelako jauzi horiek eragotziko dituzten eta, azken finean, lurra galtzea eragotziko duten jardunetara (baso-berritzeetara, harri-lubetetara eta abar) bideratu beharko direla adierazten da adibide gisa. Orientabide horrek adierazitako balio hori ezabatzea dakar argi eta garbi. Horrenbestez, kasu honetan, balio geologiko eta geomorfologikoaren kontserbazioa bateraezina da gaur egun dauden arriskuak murriztera bideratzen den lurralde-antolamenduaren irizpidearekin.

5.- Hobetu eta leheneratzeko eremuak.

Beharrezkotzat jo da zabortege gisa erabiltzeagatik ingurune fisikoaren hasierako baldintzak aldatu dituzten eta eremu funtzionalean nabarmenak diren eremuak zerrendatzea. Beraiengan eragina duen ingurumen-araudiaz gain, honakoak gaineratzen dira leheneratzeko eta hobetzeko helburura:

ZABORTEGIAK:

- AKEI
- UNIÓN CERRAJERA (Labe Garaiak)
- EPELE

Zonifikazio honetan leheneratu behar diren ibai-bazterrak barne hartzen dira, Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean adierazitakoak.

DEBA	40	Arrasate
DEBA	36	Bergara
ANGIOZAR	I	Bergara

6.- Hobi arkeologikoak eta paleontologikoak.

Debagoieneko eskualdeak ondare arkeologiko eta paleontologiko aberatsa du, eta horren barruan nabarmen daiteke Aizkorriko gune megalitikoak eta Elgea-Artiako gune megalitikoak. Biak monumentu-multzo kategoriarekin kalifikatuta barne hartzen dira Kultura Ondasunen Erregistroan (ekainaren 24ko, 137/2003 Dekretua). Testu horretan finkatzen da horien babes-araudia.

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

1.- ETORKIZUNeko KOMUNIKAZIO SAREA

- KANPOKO SARBIDE SARE OROKORRA (autobidea, autobia eta errepide nagusiak).

Proposamen honetan Debagoieneko eskualderako garrantzirik handiena duten bi esku-hartzeak barne hartzen dira.

- Eibar-Gasteiz autobidea: proiektatu den eta gaur egun gauzatzen ari den trazadura azaltzen du.

Deba ibaiaren haranean zehar lau lotune izango ditu:

- Bergara iparraldea - Amillaga (konexioa: GI-627 eta GI-6232 errepidea).
- Bergara hegoaldea - Zaldumendi (konexioa: Beasain-Durango, GI-627 errepidea)
- Arrasate iparraldea - Epele (konexioa: Beasain-Durango, GI-627 errepidea)
- Eskoriatza iparraldea - San Bernabe (konexioa: GI-627 errepidea)

- Beasain-Durango autobia: Errepideen Zuzendaritza Nagusiak planteatu duen behin-behineko trazadura barne hartzen da. Trazadura osoan noranzko bakoitzeko bi erreiko diseinua proposatzen da.

Honako guneetan proposatu dira behin-behineko lotuneak:

- Antzuloa ekialdea (konexioa: GI-632 errepidea)
- Antzuloa mendebalde (konexioa: GI-632 errepidea) - Bergarako hegoaldeko saihebidia
- Bergara hegoaldea (konexioa: Eibar-Gasteiz autobidea, GI-627 errepidea)
- Arrasate iparraldea (konexioa: Eibar-Gasteiz autobidea, GI-627 errepidea).
- Kanpazar (konexioa: GI-3551, GI-2639)

- BANAKETA SARE NAGUSIA (GI-627, GI-632, GI-2630)

Sare nagusi berriekiko konexioen ondoriozko esku-hartzeez gain, aurreikusten diren garapen berrien zerbitzurako sarea hobetzeko eta zabaltzeko hainbat eragiketa egin dira:

- San Prudentzioko bidetarteetan parke-bidea hobetzea eta aldatzea (eskualdeko burutzen interkonektorea) (GI-627, GI-632, GI-2630)
- GI-627 errepidea hobetzea, Eskoriatza-Arlaban bidetartean.

- GI-2632 konexioa San Joan poligonoraino hobetzea.
- Olandixo eta GI-2620 errepidea konektatzeko tunela eta Garagartzako haranerako sarbidea gauzatzea.
- Oñatiko haranean zeharreko ibilbidean, Zubillaga auzoko (dagoeneko egina) eta Oñatiko hiriguneko 2. faseko hiri-saihesbideak burutzea proposatzen da.

Honako bidetartek hiri-garapenarekin bateragarri kategoria dute:

- Bergara - Antzuola GI-632 (gaur egungo trazadura hobetua)
- Oñatiko harana GI-2630 (Zubillagaren eta Oñatiko hirigunearen arteko kurbak hobetzea)
- Epele - Arrasate GI-627 (Roneo - Eroski)

- TOKIKO SARBIDE SAREA

Maila honetan honakoak dira esku-hartzerik garrantzitsuenak:

Elgeta eta Leintz Gatzagako hiriguneak eremu funtzionaleko burutzekin eta oinarritzko sarearekin lotzen dituzten bidetartek hobetzea.

Elgetaren kasuan hiri-saihesbideko bi bidetartek burutzea proposatzen da: GI-2639 (Eibar-Kanpazar) eta GI-2632 (Bergara-Elorrio), azken hori Elgetako iparraldeko mazela.

- GI-3341 errepidea (Eskoriatza-Apotzaga-Gellao) hobetzea eta zabaltzea.
- Garapen berrientzako zerbitzu-trazaduran berriazko tratamenduak proposatzen dira honakoetan:
 - Eskoriatza GI-3310
 - Arrasate GI-2620 (Garagartzako harana)
 - Bergara GI-2632 (San Joan harana eta Ubera)

- TOKIKO SARBIDE SARE SEKUNDARIOAK

Bide horiek hobetzeko eta zabaltzeko zenbait eragiketa proposatzen da:

- Bolibar - Mendiola
- Larrino - Bedoña

HIRIARTEKO IBILBIDE BEREZIAK (oinezkoentzako zirkuituak eta bidegorriak)

- . Ordezko ibilbideen sarea antzinako trenbideen trazadurari jarraituz osatzen da.
- . Parke-bide bat sortzea (GI-2620) Arrasate eta Aramaio artean.
- . Honako ibilbideak egokitzea: Bergara-Angiozar-Elgeta
Aixola-Elgeta(Karabieta)-Eibar.

• TRENBIDE SAREA

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren trazadura barne hartzen da.

Trenbide-sare berriaren zerbitzuaren ezaugarriak zehaztu artean, Debagoienak zerbitzu egingo dion geltoki bat hurbil (Goierri) eraikitzea eskatzen du.

• TRANBIA

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak sustatzen duen azpiegitura berriaren proposamena gehitzen zaie Lurraldearen Zatik Plan honen helburu eta aurreikuspeni.

Proposamena orokorrean bere eginez, Lurraldearen Zatik Planak honako baldintzak proposatzen ditu.

1.- Linea luzatzea Legazpin Telleriarte parean Renferen aldiriko trenbide-lineari lotu arte.

Hemen proposatzen den esku-hartzeak garraio publikoko zerbitzuari merkatuko ahalmen handiagoa eman nahi dio; izan ere, Urola Garaiak eta Goierri lotura handia dute Debagoienarekin eta Debarrenarekin ikasleen fluxuari dagokionez (Mondragon Unibertsitatea –Arrasate-Eskoriatza-Oñati–, Eibar eta Beasaingo ikastetxe politeknikoak, Bergarako UHUN...). Gaur egungo RENFERen aldiriko trenen zerbitzua lurralde historikoaren gainerakoarekin lotuta geratuko litzateke trenbide-garraioaren maila horretan.

2.- Elorregiko geltoki intermodala.

S. Prudentzian kokatzen dugun gunea zentrala indartzeko, Deba ibaiaren haraneko tartea eta Oñatiko adarreko tartea lotzeko gauza izango den geltoki bat proposatzen da. Geltoki horrek errepidean zeharreko garraiotik tranbiara, eta alderantziz, pasatzea sustatuko luke, baita Maltzagatik (Euskotren) eta

Legazpitik (Renfe-aldiriko trenak) bideratzen diren trenbide-linearen luzatzeen eta sarrera eta irteerako zerbitzuen arteko aldaketa ere.

- 3.- Arrasate Iparraldeko autobidearen eta autobiarene loturaren ondoan (Epele aldean) trenbide-garraiorako instalazio osagarriak ezartzea (geltokia, kotxetegiak, etab.).
- 4.- Lurraldeko errepideko irisgarritasun-zerbitzua sortzea Leintz Gatzaga, Elgeta, Antzuola, Aramaio eta Arantzazurako zerbitzuak koordinatzeko.

2.- BANAKETA SAREAK

Eskualdea zeharkatzen eta zerbitzitzen duten zerbitzu-sare handiak zerrendatzen dira, eta dokumentu honetan ez dugu inolako alternatibarik edo berariazko esku-hartzerik proposatzen.

- GAS NATURALEKO SAREA (GOI-PRESIOKO SAREA)
- ELEKTRIZITATE SAREA
- TELEKOMUNIKAZIO SAREA (TRONKALA)

3.- ZERBITZUAK

3.1.- Parke eolikoa

Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Planak hautatutako Elgea-Urkillako mendiguneko parke eolikoaren esparrua mugatzen da (14). Nolanahi ere, tokiko energia elektrikoa sortzeko instalazio txikiagoak ezarri ahal izango dira, zona, etxebizitza edo jarduera isolatuei zuzkitzearen.

3.2.- Hiri-hondakin solidoak (HHS) transferitzeko estazioa

Akeiko errausketa-instalazio zaharrear kokatuta, Sasietako hondakindegirako transferentzia-funtzioa betetzen du.

3.3.- Hondakin toxiko eta arriskutsuak (HTA) transferitzeko estazioa

Hondakin solido geldoak bildu eta isurtzeko zerbitzuekin koordinatuta, transferentzia-zerbitzu hau (Epele) sortzeko aukera proposatzen da.

3.4.- Hondakin geldoen zabortegia (HGZ)

Epeleko egungo instalazioak aintzat hartzen dira hondakin geldoak botatzeko.

3.5.- Hondakin-biltegi alternatiboak (HBA)

Ibarreta (Arrasate), San Kristobal (Bergara) eta Urrutxun (Oñati) dauden hondakin-biltegiak dira. Horrez gain, Esteibarren (Eskoriatza) beste bat kokatzea proposatzen da.

3.6.- Baso eta egur-hondakinen balorizazio energetikoko instalazioa.

1,5 eta 2 ha bitarteko azalerarekin, basoko hondakinen balorizazio energetikoko instalazio bat kokatu nahi da.

Instalazioaren irisgarritasun-baldintzak eta lehengaiaren bilkintetarako espazio librearen behararen ondorioz, gomendagarria da instalazioa transformazioko lurzoruetan kokatzea (zabortegietan, harrobietan). Irizpide horri jarraituz, Epeleko ingurunean (HGZ-HTA) kokatzeko aukera adierazten dugu. Bestela, itxi diren edo ustiapena iraungitzeko epea Plan honen indarraldiaren barruan duten harrobietako edozeinetan ere koka daiteke.

4.- URAREN ZIKLOA

Eguno Urkulu, Leintz Gatzaga eta Albitxuko edateko uren aratzegiak barne hartzen dira, eta etorkizuneko Olateko urtegia (Oñati) okupatzeko erreserba gaineratu da.

Hondakin-uren araztegien aurreikuspenak Epele eta Mekolalden kokatzen dira

5.- GARRAIOA

Tranbia-zerbitzu berria sortzea izango da garraioaren alorrean egiten den ekarpen nagusia; alderdi hori kapitulu honen 2. idatz-zatian azaldu dugu.

Eguno errepideko zerbitzuak (lineaz kanpoko garraioa) tranbia-linea berriarekin koordinatu beharko liriateke.

Mota horretako garraiorako instalazio osagarriak Arrasateko Epeleko eremu horretan kokatuko dira.

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

3.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

0.- IRIZPIDE OROKORRAK

Hemen proposatzen diren zuzkidura eta espazio libreen garapena lurralde-ereduaren filosofiari loturik dago, batik bat kulturaren eta aisia oinarritutako ingurumen-kalitateko eta paisaia-kalitateko espazioa eskaintzea baitu helburu, eskualdeak herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzeko eduki behar dituen ekipamenduak bazter utzi gabe.

3. planoan "Ekipamenduak eta espazio libreak" gaur egun dauden eta proposatzen diren ekipamenduak zerrendatzen eta kokatzen dira. Behar besteko lurzoru-okupazioa dagoen kasuetan soilik mugatzen da, betiere ondorengo beste plangintza-jardunen baten mende ez badago.

Alabaina, ingurune fisikoaren I.1 eta I.2. kategorietako espazio libreak beren hedadura osoan mugatu dira. Gainerakoa orientabide gisa baino ez da adierazten.

Zerrendan eskualde-mailatik hasi eta eskualdepeko mailaraino iristen diren elementuak jasotzen ditu, gainerakoak alde batera utzita, udal-esparruari dagozkio-eta.

1.- EKIPAMENDUAK

1.1.- Unibertsitate-ekipamendua

Duela gutxi sortua den MONDRAGON UNIBERTSITATEA, Oñatiko Enpresa Zientzietako Fakultatea, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea eta Arrasateko Goi Eskola Politeknikoa bere baitan hartzen dituena, Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren unibertsitatea da, argi eta garbi eskualdeari zuzendua.

Ikasleak hartzeko ahalmenak isla izan beharko du ostatu-ahalmenean (pisuak, ikastegi nagusiak...). Horrez gain, kokapen deszentralizatua duenez gero, eskualde barruko hiri-garraioak (gaur egun ez dago halakorik) sortuko diren fluxuetara moldatu beharko du.

Unibertsitate horrez gain, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UHUN) dago Bergaran, IKASBIDE Aretxabaletan, eta Soziologia Juridikoko Institutua Oñatin, unibertsitate-eskaintza espezializatua eta kualifikatua osatuz.

Bigarren irakaskuntza, bestalde, aise ziurtatzen dute hirigune nagusietan dauden ikastetxeek: Bergara, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatza (Almen).

1.2.- Kirol-ekipamendua

Musakolako (Arrasate) kirol-eremua eremu funtzionaleko kirol-zentro nagusia da (kirol-zelaiak, estadioa, belodromo txikia, etab.), eta oso zuzkidura-maila handia duen egungo kirol-ekipamendua (kiroldegiak, pilotalekuak, igerilekuak...) birkualifikatzen du.

Dagoeneko burutu diren instalazio jakin batzuk nabarmentzen dira, ikuskizunaren mailan eskualdeko eragina gainditzen baitute, hala nola, Bergara, Arrasate eta Elgetako pilotalekuak (azkenekoa afizionatuen mailan).

Orobat, Garagaltza-Berezaoko (Oñati) enpresa-parkeari, aisialdiko eta bizitegiko jarduerak garatzeko esparruari, golfari eta bestelako instalazioei loturik geratzen dira gainerako kirol eta aisialdiko instalazioak.

1.3.- Kultur ekipamendua

Aurreko atalaren osagarri gisa, eremu funtzionaleko kultur eskaintzaren bereizgarri den atal honek honako ekipamenduak ditu:

- Dorletako ekomuseoa (Leintz Gatzaga)
- Eskoriatzako Museo Etnografikoa - Ibarraundi Jauregia
- Elektrizitatearen Museoa (Oñati)
- Arrikruz haitzuloa (Oñati).
- Arantzazu Kultura Gunea (Oñati).
- Bergarako Erret Mintegiko Zientzia Museoa.
- Euskal Herriko Mendi Museoa eta Interpretazio Zentroa, Elgetan.
- Debagoieneko Industriaren eta Teknologiaren Museoa – Interpretazio Zentroa (Arrasate).

1.4.- Administrazio-ekipamendua

Udal-maila eta udal-zerbitzuko instalazioez gainera, honakoak aipa daitezke:

- Debagoieneko Mankomunitatea (Arrasate)
- Eskualdeko Ertzain Etxea (Bergara)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Mikrofilmata (Bergara)
- Eskualdeko auzitegia (Bergara)
- Ertzain Etxea (Arrasate)
- Jabetza Erregistroa (Bergara)

Alderdi horretan, eta tokiko premiak edozein izanik ere, beharrezkotzat jotzen da (bidezko erabaki politikoaren arabera) Debagoieneko Mankomunitatearentzat ordezkatzeko-maila funtzional handiagoa duten instalazioak (aparkalekuak) gauzatzea zentraltasuneko edo irisgarritasuneko kokapen egoki batean.

1.5.- Osasun eta Laguntza Ekipamendua

Udalerrri bakoitzeko laguntza anbulatorioaz gain, eremu funtzionalak honako ekipamenduak ditu:

- Debagoieneko Eskualde Ospitalea (Osakidetza), Arrasate
- Aita Menni Ospitale Psikiatrikoa (Arrasate)
- San Juan de Dios Zerbitzu Psikiatrikoa (Arrasate)

Arlo horretan, udal-mailan egin diren aurreikuspenek eta berriki egin diren hobetzeko eta zabaltzeko esku-hartzeek bermatu egiten dute mota honetako ekipamenduen zuzkidura-indarraldi zabala.

1.6.- Aisia, turismo eta merkataritzako ekipamendua

Zuzkidurei dagokienez, hauxe da, hain zuzen ere, eremu funtzionaleko atalik defizitarioena. Ildo horretan, honakoak proposatzen dira:

- Merkataritza eta aisialdiko zentroa (Arrasate)
- Elorregiko harrera eta informazioko zentroa (Bergara).
- Garagaltza-Berezao (Oñati)
- Gaztainuzketa (Leintz Gatzaga).

Udalerriek hotel-azpiegitura txikia dute berriki. Urkuluko habitat alternatiboari lotuko zaion hotel-ekipamendua sustatu nahi da aldagai tipologiko guztietan (hotela, erresidentzia, kanpina...). Hori xede horretarako gordetako espazioetan egingo da, eta hotel-erabilera lurralderako irisgarritasunarekin lotuko da.

Atal honetan aipatzekoa da Gaztainuzketako (Leintz Gatzaga) landa-ostatuen multzoa. Egungo eskaintza zabaldu egin behar da, eta gaur egun dituen instalazioak aisia alternatiborako elementuekin osatu behar dira.

1.7.- Ekipamendu Judiziala

Eremu funtzionalak Bergarako eskualde-epaitegia dauka. Ildo horretan, ez da beharrezkotzat jotzen lurralde-kokaleku zehatzik aurreikustea, eta instalazioen kudeaketa sektorialak egin beharko du epaitegia udalerriaren edo udalerrien hiri-garapenean integratuta handitzeko edo hobetzeko proposamena.

1.8.- Ondare Historiko Arkeologikoa

Kultura Ondare arkeologikoen (kalifikatuen, inbentariatuen eta ustezko zona arkeologikoen) zerrendan barne har daitezkeen zona, elementu eta lekuen zerrenda zabaletik, Debagoieneko eremu funtzionalaren esparruan dauden eta Euskal Kultura Ondarearen inbentario orokorrean barne hartzen diren monumentu-multzo edo -espazio guztiak jasotzen dira. Kultura Sailak guztietarako Babes Araubidea finkatu du:

- Arrasateko hirigune historikoko zona arkeologikoa. 1998ko martxoaren 30eko EHAA.
- Bergarako hirigune historikoko zona arkeologikoa. 1998ko martxoaren 30eko EHAA.
- Elgetako hirigune historikoko zona arkeologikoa. 1998ko maiatzaren 6ko EHAA.
- Eskoriatzako Apotzagako hilerria. 1994ko azaroaren 8ko EHAA.
- Leintz Gatzagako hirigune historikoko zona arkeologikoa. 1998ko maiatzaren 6ko EHAA.
- Leintz Gatzagako Dorletako gatzagen multzoa. 1995eko urtarrilaren 27ko EHAA.

2.- GARRAIOARI LOTUTAKO EKIPAMENDUA

Bereziki (bide-trazaduren, errepideen eta trenbide-lineen azpiegiturak berak sortzeaz gain), honako erabilera-zona hauek proposatzen dira:

- Errepideko garraio-zentroa, Elkoromunio – Ipiñarrin (Bergara).
- Bidaiarien errepideko garraioaren eta tranbiaren (kotxetegiak) zentro osagarria Epelen (Arrasate).
- Elorregiko geltoki intermodala (Bergara).

Estrategikoki kokatu dira zuzkidura-eremu eta parkeetarako eta horiekin lotzen diren espazio balioanitzetarako sarbideak eta aparkaleku gomendagarriak sortzeko edo hobetzeko guneak (3. plano).

3.- ESKUALDEKO ESPAZIO LIBREAK. AISIALDI EREMUAK

Udalaz gaindiko zerbitzu-ahalmena izango duten honako zonak proposatzen dira:

- Ibai-parkea (Deba ibaiertzean) Leintz Gatzagan.
- Besaide (Arrasate – Aramaio)
- Elorregi – S. Prudentzio (Bergara – Arrasate)
- Gorla (Bergara – Antzuola)
- Asentzio (Elgeta)
- Karabieta (Elgeta)
- Usako (Oñati)
- Torrebaso-Bainuetxe (Eskoriatza)
- Ibilbide bigunak: bidegorriak eta oinezkoentzako ibilbideak

Espazio horiek guztiak maiz erabiltzen dira, eta bertan garatzen diren jarduerako tradizionalak dira.

**ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA
(DEBAGOIENA)
BEHIN BETIKO ONARPENA**

**4.- BIZITEGI LURZORUAK ETA EKONOMIA
JARDUERETAKOAK**

1- LURRALDE EREDUA.

Arrasate Bergarako Lurraldearen Zatik Planak definitzen duen lurralde-eredua 4. planoan grafiatzen da, HIRI KOKALEKUAK. BIZITEGIRAKO ETA INDUSTRIARAKO LURZORUAK planoan alegia:

- Debako luzetarako ardatz nagusia betetzea, gaur egun ia badagoen hiri-continuuma finkatuz. Alabaina, espazio-erreserbako zona bat planteatzen da hegoaldeko muturrean eta erreserbatutako beste espazio bat iparraldeko muturrean. Halaber, Elorregi-San Prudentzio zeharkako ardatz nagusiarekiko elkargunea zuzkidura-eremu eta parke gisa planteatzen da.
- Oñatin zeharkako ardatz nagusia betetzea, eta beronen izaera sustatzea, gaur egun eskualdean dauden bi burutzen aurrean hiru burutzetako sistema lortzearren. Bere zeharkako ardatzak gordetzea (Urkulu eta Zañartu).
- Deba ibaiaren zeharkako ardatzak (Deskarga, Ubera eta Aramaio) hiri-garapenik gabeko korridoreen bidez babestea eta Ubera ondoan espazio-erreserba bat sortzea. Angiozar eta Epele hiri-garapenik gabeko beste korridore gisa babestea bigarren maila batean. Hala, batetik, Antzuola eta Elgeta eta, bestetik, Leintz Gatzaga eta Aramaio hirigune "isolatu" gisa geratuko dira, ez dira hiri-continuumean barne hartuko.
- Albinagoian espazio-erreserba handi bat definitzea, ezaugarri naturalistiko eta ingurumen-ezaugarri bereziak ditu-eta.
- Urkulun espazio-erreserba definitzea (urtegia eta ibaia – etorkizunearan urtegia egiteko aukera).
- Espazio-erreserba bat definitzea Urkulun (urtegia, ibaia eta etorkizuneko urtegia). Azken kokagunearen bigarren atala aisialdirako eta atsedenerako jarduerekin bateragarria izan daiteke.
- Plangintza orokor, bateratu eta integraleko esparru bat mugatzea, hiri-zabalgunea eta kirol, irakaskuntza eta teknologiko ekipamendua garatzeko (Garagaltza-Berezao Oñatin).
- Mondragon Unibertsitatea / Garaia Berrikuntza Ardatza Arrasaten, Garagaltza-Berezao eremuan jarraitzeko aukerarekin.
- Ekonomia-jardueren erabilerak, oinarrizko egituraz kanpo, komunikabide handietarako sarbideetan estrategikoki kokatuak.

EREMU ERRESERBATUAK

HIRI GARAPENIK GABEKO ESPARRUAK

Izendapen horren barruan barne hartzen dira A eta B hiri-garapenik gabeko korridoreak, espazio-erreserbak eta beste espazio erreserbatu batzuk.

HIRI GARAPENIK GABEKO KORRIDOREAK.

A mota: gehienak komunikazio-bide nagusiekin lotzen dira (banaketa-sare nagusia eta tokiko sarbide-sare nagusia). Haranen gunen meharrenetan barrena bideratzen dira (Elorregiko ingurunea Deba ibaiaren haranean, Deskarga eta Aramaio ibaiaren tarteak,...), edota ingurune fisikoari dagokionez kokaleku berezia dute (Elgeta, Oñati, Leintz Gatzaga).

Lehenengo kasuan, ertzak okupa daitezten saihesten saiatuko da, eta, "lurralderako sarreragunetzat" jotzen diren udalerrietan (Leintz Gatzaga, Oñati, Elgeta), ingurune fisikorako sarrera-aukerak gordetzen saiatuko da. Hala, landa-ingurunean kokatu behar diren eta erabilera publikoagatik edo interes sozialarengatik behar bezala justifikatzen diren hirugarren sektoreko erabilerak eta ekipamendu komunitarioak ezartzea erraztuko da.

B mota: tokiko sarbide-sare sekundarioan zehar kokatuta daude. Zeharkatzen duten lurraldea garapen berriko eragiketez eta helburuez babestea lortu nahi da.

Azkenik, eta eremu erreserbatuetan erabiltzeko edo ez erabiltzeko baldintzak arautu behar dira.

Honako baldintzak hartu dira aintzat:

- Albinagoiko espazio-erreserbak babes berezia izango du, eta ingurune fisikoarekin lotzen diren erabilerak soilik baimenduko dira.
- Era berean, Urkuluko espazio-erreserba Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planean xedatzen denaren arabera arautuko da.
- Eskoriatzako eremua: Eskoriatzako hiri-continuumak bete ondoren kokalekuak okupatzeko izango duen ahalmena balioz hornituko da.
- Ubera – Elgeta eremua: aurrekoa bezalaxe, Elgetako aurreikuspenak bete ondoren balioz hornitu ahal izango da. Haatik, Elgeta hirigune isolatu gisa, Bergararekin hiri-continuumik osatu gabe, mantentzeko irizpideari eutsiko zaio.

Azkenik, eta erabilera zehaztu gabeko beste espazio-erreserba gisa, Bergarako Mekolalde/Murinondo ibarra proposatzen da. Espazio lau bakarria denez gero, garrantzi handikoa da eta etorkizunera begira izan ditzakeen aukerak aztertu beharko dira.

2- BIZITEGI LURZORUAREN KUANTIFIKAZIOA.

1- EREMU FUNTZIONALA.

a) BIZITEGI GARAPENERAKO IRIZPIDEAK.

- Lurralde-antolamenduko ereduaren demografia mantentzeko ezarritako esku-hartzeari dagokionez, bizitegi-kokalekuak okupatzeko lurraldearen ahalmen urriak honako ondorio hauek sortuko ditu:
 - Hiri-esparruetan dentsitate handiak ezartzeko premia. Beraz, dentsitate handiko hiri-bilbeak garatuko dira, baina hori ez da bateraezina goi mailako hiri-kalitatea lortzeko helburuarekin.
 - Aldapa leuneko mendi-hegalen “kolonizazioa”, hiri-esparru tradizionala baino maila handiagoko ingurumen-kalitatea eskainiko duten lurraldearen ezaugarri fisikoetara egokitutako tipologia berriak azpimarratu eta ikertuz. Ez dira, inola ere, luxuzko etxebizitzak sustatu nahi, gizarte-maila guztiei erantzun ahal izango dieten tipologiak barne hartu ahal izango dira.
 - Adierazitako ezaugarriak direla eta, dentsitate txikiko (0-30 etx./ha) eta handiko (>50 etx./ha) etxebizitzak garatu beharko dira. Dentsitate ertaina dei daitekeena (30-50 etx./ha) dagoeneko planifikatutakoan eta aditzera ematen den jardun zehatzen batean gauzatzen da batez ere
 - Erabilera horretara zuzendutako lurzorua merkaturatzean harrotze txikia, lurzoru-urritasunaren ondorioz.
 - Administrazioaren esku-hartze irmoa (esparru guztietan), gero eta handiagoa den espekulazioa ahal den neurrian arintzera eta lurzoruaren prezioa sendo eta zorrotz kontrolatzera zuzendua. Jardun hori oso garrantzitsua da hiri-esparruetan.

b) ETXEBIZITZEN KUANTIFIKAZIOA

- SARRERA

Planaren lehen horizontearen indarraldian –16 urte– abiarazi beharreko etxebizitza-kopurua kalkulatzeko eta kuantifikatzeko, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan finkatutako aurreikuspenak hartuko ditugu abiapuntu, bertan erabiltzen diren bost parametroen arabera ulertzen baita emaitza:

lurralde-ereduaren inplikazioak, hazkunde demografikoa, familia-egituraren aldaketa, eskaintzaren zurruntasuna zuzentzea eta bigarren bizitegia. Orokorrean ulertuta, ez dira gehiegi aldatu behar.

Eremu funtzionala aintzat hartzen duen balorazio orokor hori 0 atalean jada aditzera eman den lurralde-ereduarekin alderatuko dugu, proposatutako mantentze demografikoari dagokionez batik bat. Hala, maila goreneko aurreikuspenak eta bertan proposatzen den eredia bateragarri egin nahi dira –lehen horizonte honetarako behintzat–. Hemen azaltzen diren aurreikuspenak garatzeak edo ez garatzeak eragin handia izango du Debagoieneko eremu funtzionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Hirien Gune Anitzeko Sistemari etorkizuneko horizontean izango duen eginkizuna aldatzeko edo ez aldatzeko.

Azaldutakoagatik, eta ezarritako zenbatekoak kontuan izanik, proposatutako eredura gehiago edo gutxiago egokitzeak bizitegi-lurzoruaren eskaintzaren harrotze-maila txikiagoa edo handiagoa ekarriko du.

Horrenbestez, atal honetan, funtsean, gure iritziz beharrezkoak diren lurralde-berrorekak ezarri nahi dira, bai eskualde-mailan, bai azpieskualdearen mailan. Hori dela-eta, etxebizitzaren kopurua udalerritik batetik bestera eta esparru homogeen edo azpieskualde batetik bestera mugitzen da.

- LURRALDE BERROREKA

Debagoieneko eskualdea lau azpieskualdetan edo lurralde-esparru homogeen egituratzen den arren (Leintz Bailara, Oñati, Bergaraldea, eta Aramaio), kualifikaziorako hiru baino ez dira aintzat hartuko, Aramaio Leintz Bailarako esparruan barne hartuko baita; izatez, zuzenean lotuta daude eta hirigintzaren ikuspegitik oso pisu urria du, eta ikuspuntu horixe da, hain zuzen ere, kapitulu honetan aztergai duguna.

Honakoa da gaur egungo biztanleriaren banaketa:

Leintz Bailara: 36.100 bizt. Bergaraldea: 18.200 bizt. Oñati: 10.600 bizt.

Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak emandako oinarria abiapuntu izanik, eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei jarraituz, etxebizitzaren emaitzako kopurua banatzea proposatzen da. Hala, zenbatekoak zuzendu ondoren, eskualdeko esparru bakoitzaren zeregina zertxobait berrorekatuko da. Zertxobait aipatu dugu, hiru esparru horiek tamaina-lerruna indizearen aplikazioari dagokionez portaera ona baitute; alabaina, Bergaraldea eta Oñati beren aukeren azpitik daude zertxobait.

Hori dela-eta, tamaina-lerruna indizearen aplikazioan portaera ona izaten jarraitzea planteatzen dugu, baina Bergaraldearen eta Oñatiren portaerak alderantzikatuko ditugu, bi esparru horiek eremu funtzionalean duten eginkizuna areagotuz.

Bergaraldeko azpieskualdeak ere berrorekatzeari eskatzen du, Elgeta eta Antzuola indartu nahi dira Bergarako hirigunea behin betiko eta atzera bueltarik gabe ez pilatzeko.

Leintz Bailarako azpieskualdearen tratamendua proportzionala da, inplikazio-maila desberdina izango du udalerrri horietan, beren dimentsioen arabera.

Aipatutako oinarriaren arabera Lurraldearen Zatik Planaren esparruan (16 urte) planifikatutako etxebizitzak guztira 9.576 dira. Horrek, 2'05eko harrotzea dakar, betiere 4'5 etx./urte/ 1.000 bizt.-ko eraikuntza ahaleginarekiko, horixe baita eremu funtzionalean eman dena eta egokitzat jotzen dena.

Azkenik, eta babes ofizialeko etxebizitzaren dimentsionamenduko proposamenari dagokionez, egokia dirudi erabili den irizpidea, hau da, Elgeta, Aramaio eta Leintz Gatzagako udalerrietan dauden gabeziak soilik adieraztea, gure iritziz mota honetako jardunetan ere parte hartu beharko lukete-eta.

Proposatzen den etxebizitza babestuen kopurua 2.320 etxebizitzatakoa da eta kopuru horri beste 190 etxebizitza gaineratu behar zaizkio erantsitako udalerrietarako. Hortaz, guztira 2.510 babes ofizialeko etxebizitza dira.

Bestalde, planifikatutako etxebizitzaren guztizkoaren gainean %26 izango dira babes ofizialekoak; harrotzea 2,05ekoa dela kontuan hartzen badugu, babes ofizialeko etxebizitzaren ehunekoa eraikuntza-ahaleginaren gainean %54koa da. Beraz, etxebizitza babestuei buruz egindako aurreikuspen guztiak gauzatzean oinarrituko da.

2- LURRALDE ESPARRUAK.

4. planoan bizitegi-kokalekuetarako lurzoru-esparruak grafiatuko dira, aurreko atalean jada azaldutako irizpideei jarraituz.

BERGARALDEA

Azaldu dugun eskualde zein azpieskualde mailako berrorekaren irizpideari jarraipena emanez, esparru hau indartu egingo da, batez ere Antzuola eta Elgetako udalerrien bitartez. Bergaran, bestalde, dentsitate ertaineko kokalekuak planteatzen dira mendi-mazeletan.

2.845 etxebizitza proposatzen dira, eta horietatik 700 etxebizitza babestuak izatea proposatu da.

Udalerrri guztietan hiriguneak birgaitzeko eragiketak eta hiri-berrikuntza eta hiri-aldaketako lanak planteatzen dira.

OÑATI

Irizpide berari jarraituz, Oñatiko azpieskualdea sustatzea proposatzen da, dentsitate handi, ertain eta txikiko kokalekuak bultzatuz.

2.264 etxebizitza proposatzen dira, eta horietatik 600 etxebizitza babestuak izatea proposatu da.

Era berean, hirigunea birgaitzea proposatzen da.

Hala ere, asmo handieneko jarduna izango da GARAGALTZA-BEREZAOKO HIRI ZABALGUNEKO PLANGINTZA OROKOR, BATERATU ETA INTEGRALEKO ESPARRUA. KIROL, IRAKASKUNTZA ETA TEKNOLOGIAKO EKIPAMENDUA. Jardun honek antolamenduko plan berezi baten xede izan beharko du.

LEINTZ BAILARA

Aditzera eman den moduan, azpieskualde honen tratamendua udalerrri bakoitzaren tamainaren proportziozkoa izango da, eta mendi-mazelan kokatuko diren dentsitate handi, ertain eta txikiko garapen zehatzak izango dira.

4.427 etxebizitza aurreikusten dira (aipatutako 1.000 etxebizitza horiek barne) eta etxebizitza horietatik 1.210 babestuak izango dira.

Udalerrri guztietan hiriguneak birgaitzeko eragiketak planteatzen dira, eta haranean (Eskoriatzan, Aretxabaletan eta, batez ere, Arrasaten) hiri-berrikuntza eta hiri-aldaketako lanak planteatzen dira.

3- UDALERRIAK.

Atal honi etxebizitzaren kuantifikazioko taula orokorra eta kalkulu horretarako aplikatutako irizpideak gaineratzen zaizkio. Ondoren, adierazitako irizpide horien arabera udalerrri bakoitzeko finkatutako gehieneko helburuak ematen dira aditzera – Antolamendu Arauetako 1.22 artikuluan arautzen dira (6. dok.)–.

• BERGARALDEA

ANTZUOLA:

Udalerrri honek azpieskualdea berronkatzeko funtsezko zeregina du, eta ondorio kualitatiboak eta kuantitatiboak izango ditu. Mendi-mazelan dentsitate ertaineko okupazioa eta hiri-aldaketako bi eragiketa garrantzitsu planteatzen dira: Irundegia eta Lizarraga errekaen ibarra (Elay eta Camachoko kokalekuak). 550 etxebizitza kuantifikatu da eta etxebizitza horietatik 100 babestuak izango dira.

Lehen zortzi urteetarako plangintzaren bizitegi-ahalmenak 413 etxebizitzatakoa izan beharko du. Haatik, gerta daiteke ez betetzea, horietako batzuk bigarren aldirako aurreikusten den berrikuntza-eragiketetan kokatzen baitira.

BERGARA:

Bergarako udalerrria ia aseta dagoenez gero, batetik, Etxebizitza Zuzendaritzak emandako datuetatik etxebizitzak kenduko dira eta Elgetan eta Antzuolan kokatuko dira, eta, bestetik, dentsitate txikiko eta ertaineko kokaleku bat planteatuko da (San Blas eta San Martzial).

Horrez gain, hiri-aldaketako eragiketa bakarra San Antonio kotoi-fabrikan kokatzen da.

Adierazi bezalaxe, 1.872 etxebizitza kuantifikatu da eta etxebizitza horietatik 500 babestuak izango dira.

Halaber, plangintzak lehen zortzi urteetarako izango duen bizitegi-ahalmena 1.404 etxebizitzatakoa izango dela kalkulatu da.

ELGETA:

Antzuolaren kasuan bezalaxe, azpieskualde mailan berronkatzeko zeregina beteko du kualitatiboki zein kuantitatiboki, eta xede horretarako dentsitate txiki eta ertaineko bizitegi-ezarpenak proposatuko dira, baita hiri-aldaketa handia ere, bere eskala kontuan hartuta jakina: Berraondokua - Zabala Hermanos.

423 etxebizitza kuantifikatu da eta etxebizitza horietatik 100 babestuak izango dira.

Lehen zortzi urteetarako plangintzaren bizitegi-ahalmenak 371 etxebizitzatakoa izan beharko du, eta Antzuolan gertatzen dena ere gerta daiteke hemen, hau da, aldaketako eragiketa nagusia epe luzeragoko planteatzen dela.

• **OÑATI**

Aurreko atalean (LURRALDE ESPARRUAK) dagoeneko aditzera eman ditugu kuantifikazioa zein kokapenak

• **LEINTZ BAILARA**

ARRASATE:

Mendi-mazeletako dentsitate ertain eta txikiko okupazioez gain, hiri-aldaketa sakona planteatzen da. Aldaketa horri dagoeneko hasiera eman zaio Unión Cerrajera eremuan, eta jarraipena izango du Zabalgunean eta, epe luzeagorako, Gelma-Gamei eremuan.

2.514 etxebizitza kuantifikatu da, eta etxebizitza horietatik 750 babestuak izango dira.

Halaber, plangintzak lehen zortzi urteetarako izango duen bizitegi-ahalmena 1.885 etxebizitzatakoa izango dela kalkulatu da.

ARETXABALETA:

Hiri-okupazio nagusia mendebaldeko mazelakoa da. Zerrategiko eremuan ere hiri-aldaketako prozesua gertatzen da.

922 etxebizitza kuantifikatu dira, eta etxebizitza horietatik 220 babestuak izango dira.

Lehen zortzi urteetarako plangintzaren bizitegi-ahalmena 691 etxebizitzatakoa izango da.

ESKORIATZA:

Haranaren okupazioari jarraipena emanez, hegoalderantz dentsitate ertaineko okupazioa proposatu da. Era berean, Eskoriatzako hirigunerako oso garrantzitsua den hiri-aldaketako eragiketa burutzen da Santa Marinan.

618 etxebizitza kuantifikatu da, eta etxebizitza horietatik 150 babestuak izango dira.

Lehen zortzi urteetarako plangintzaren bizitegi-ahalmena 464 etxebizitzatakoa izango da.

LEINTZ GATZAGA:

Hirigune historikoa asetzea eta birgaitzea proposatzen da. Horretarako, 83 etxebizitza kuantifikatu dira, horietako 20 babestuak.

Lehen zortzi urteetarako plangintzaren bizitegi-ahalmena 62 etxebizitzatakoa izango da.

ARAMAIO:

Hirigunea iparralderantz zein hegoalderantz zabaltzea proposatzen da, dentsitate ertaineko okupazioa beti.

290 etxebizitza kuantifikatu da eta etxebizitza horietatik 70 babestuak izango dira.

Lehen zortzi urteetarako plangintzaren bizitegi-ahalmena 218 etxebizitzatakoa izango da.

LABURPEN TAULA.

UDALERRIA	ETX.KOP. 8 URTE	ETX.KOP. GUZTIRA	ETX.KOP. BABESTUAK	AZPI-ESKUALD. ESKUALDEA
ANTZUOLA	386	513	100	
BERGARA	1.421	1.890	500	
ELGETA	253	336	100	
	2.134	2.845	700	BERGARALDEA
OÑATI	1.726	2.296	600	OÑATI
ARRASATE	1.996	2.655	750	
ARETXABALETA	689	916	220	
ESKORIATZA	458	609	150	
LEINTZ GATZAGA	69	92	20	
ARAMAIO	202	269	70	
	3.320	4.427	1210	LEINTZ BAILARA
	7.200	9.576	2.510	DEBAGOIENA

**ERANSKINA: BIZITEGI LURZORUAREN ESKAINTZA EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO
ARTEZPIDEEN ARABERA KUANTIFIKATZEKO KALKULU
ORRIA.**

ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATIKO PLANA (DEBAGOIENA)

4.- BIZITEGI LURZORUAK ETA EKONOMIA JARDUERETAKOAK

ANEXO: HOJA DE CÁLCULO PARA LA CUANTIFICACIÓN DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL
DE ACUERDO A LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL DE LA C.A.P.V.

RESUMEN DE DATOS DEL ÁREA FUNCIONAL DE: ALTO DEBA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
MUNICIPIO	Comp. 1 MODELO TERRITORIAL	Comp. 2 CRECIMIENTO DEMOGRAFICO	Comp. 3 VARIACION EST. FAMILIAR	Comp. 4 CORRECCION RIGIDEZ OFERTA	Comp. 5 SEGUNDA RESIDENCIA	Comp.1+2+3+4+5 Nec.Total espon. viv.8 años (D.O.T.)	Comp.1+2+3+4+5 Nec.Total espon. MIN. viv. 8 años	Nº VIV./ 16 años Nec.Total espon. viv.16 años	Nº VIV./ 16 años Nec.Total espon. MIN. viv.16 años	Nº VIV./ 8 años TOTAL propuestas por el P.T.P.	Nº VIV./ 16 años TOTAL propuestas por el P.T.P.
ARRASATE	0	0	767	1.229	0	1.996	1.382	2.655	1.837	1.885	2.514
BERGARA (*)	-200	0	537	1.084	0	1.421	879	1.890	1.169	1.404	1.872
OÑATI	500	0	336	890	0	1.726	1.281	2.296	1.704	1.698	2.264
ARETXABALETA	0	0	189	500	0	689	439	916	584	691	922
ESKORATZA	0	0	125	333	0	458	292	609	388	464	618
ANTZUOLA	100	0	60	226	0	386	273	513	363	413	550
ELGETA	100	0	33	120	0	253	193	336	257	317	423
LEINTZ-GATZAGA	0	16	11	42	0	69	48	92	64	62	83
ARAMAIO	0	0	43	159	0	202	123	269	163	218	290
TOTAL A.F.	500	16	2.101	4.583	0	7.200	4.909	9.576	6.528	7.152	9.536

Columna 7: Necesidad **MÍNIMA** prevista en **8 AÑOS**: Obtenida considerando un $CR_{min}=0,5CR$ propuesto por las D.O.T.

Columna 8: Necesidad prevista para **16 AÑOS**. Obtenida de la Cuantificación para 8 años (Columna 6), multiplicada por un coef.=1,33 (Relación entre el esponjamiento "3" para 8 años y el esponjamiento "2" para 16 años)

Columna 9: Necesidad **MÍNIMA** prevista en **16 AÑOS**: Obtenida considerando un $CR=0,5CR$ propuesto por las D.O.T.

Columna 10: Nº de viviendas para los primeros **8 AÑOS** propuesto por el P.T.P.

Columna 11: Nº de viviendas para **16 AÑOS** propuesto por el P.T.P.

CRITERIOS DE REEQUILIBRIO TERRITORIAL PROPUESTOS POR EL P.T.P.:

- 1- Potenciación de la subcomarca de Oñati.
- 2- Potenciación de los núcleos de Elgeta y Antzuola con el fin de descongestionar Bergara.

NOTA: La "Componente 1" negativa en el municipio de **Bergara** solo tiene carácter ilustrativo interno, con el objeto de reflejar la propuesta de reequilibrio realizada por el P.T.P.; no trasladándose con carácter impositivo salvo en lo que respecta a la mención a la limitada disponibilidad territorial a la que se hace referencia en el texto escrito.

3- EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORUAREN KUANTIFIKAZIOA.

1.- EREMU FUNTZIONALA.

a) LURRALDE EREDUA. EKONOMIA JARDUEREN KOKALEKUETARAKO IRIZPIDEAK.

Bizitegi-garapenaren kasuan bezalaxe, lurraldeak ekonomia-jardueren kokalekuak hartzeko ahalmen urria duela egiaztatzen da, eta honako ondorio hauek sortzen ditu:

- Ezinezkoa da okupazio estentsiboko enpresak ezartzea. Entitate txikiko esparruak direnez gero, baldintzatuta geratzen da kokaleku-mota, eta gehienez ere tamaina ertaineko enpresetara mugatzen da.
- Horrenbestez, lurzoru-okupazio handiko jarduerak beste eremu batzuetara “eraman” beharra dago, Arabara batik bat.
- Lanbide-birkualifikazioa izan behar da helburuetako bat, are gehiago unibertsitatearen inplikazio irmoa kontuan hartuta. Horrela, kualifikazio handiagoko lanpostuak sortuko dira eta horretarako lurzoru-okupazio txikiagoa beharko da gainera.
- Halaber, hirugarren sektorerako joera handiagoa behar da, industria-jarduerarekiko ia erabateko mendekotasuna gainditzearen. Izan ere, hirugarren sektorerako joera handiagoak lurzoru-okupazio txikiagoa ekarriko du dentsitate handiagoaren ondorioz (m²/enplegu).
- Ezinbestekoa da gaur egungo m²/enplegu okupazio-“ratioak” murriztea.
- Ezarri beharreko jarduerak balio erantsi handiagoko industria-jarduera izan beharko dute; lurzoruaren zein urbanizazioaren kostuak oso handiak izango dira eta, ondorioz, zenbait produktu lantzea ez da interesgarria izango.
- Industria-izaerako hiri-birkualifikazioko jardun zehatzak burutu beharko dira, baita erabilerak aldatzeko jardunak ere, industria-okupazioa bizitegi-okupazio bihurtuz. Logikoki azalera horiek garapen berriko eremuetan sortu beharko dira.
- Ekonomia-jardueretarako lurzoru egoki urri dagoenez gero –bizitegi-lurzoruarekin gertatzen zen bezalaxe–, behar-beharrezkoa izango da Administrazioak lurzoru horren kudeaketan esku-hartze irmoa izatea.

- GARAIA proiektu hasi berria eragiketa irmo baten isla argia da, eta proiektu honetan administrazioak eta talde kooperatiboa inplikatu dira.
- Horrez gain, garapen berriko eremuak sortuko dira, eremu funtzionalean egingo diren azpiegitura-obra handietan izango diren lur-mugimenduetan sortutako soberako lurrek eraginda. Era berean, nekazaritza intentsiborako esparruak sortuko dira (nekazaritza-herrixkak).
- Jardun horiek lurralde-eredua distortsionatzen dute zati batean; kokalekuak zuzenean azpiegiturei lotuta jarraituko duten arren, beren kokapena ez da jarraitasunik gabekoa, hiriguneetatik urrun dauden eremuetan barreiatuta gertatuko da.

b) AHALMENA

- Industria-garapenerako planifikatutako helburua*, hau da, 10 urteren buruan 3.000 enplegu sortzea eta 50 ha okupatzea, lehen horizonteari dagozkion 16 urtetara estrapolatzen da. Horrek 4.800 enplegu eta 80 ha inguruko okupazioa dakar. Bertan ez da GARAIA proiektua aintzat hartzen, eta proiektu horren okupazioa 50 ha-koa da.
- Orokorrean Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritako irizpideak eta zehaztapenak onargarriztat hartzen dira eta indarrean daudela ulertzen da. Bertan erabiltzen diren kuantifikazioak bat datoz, oro har, lan honetako kuantifikazioekin. Aldeak oso txikiak direnez gero, bi kasuetan kuantifikazio bera erabiliko da, nahasteak saihestearren.

Horrenbestez, DEBAGOIENENKO EREMU FUNTZIONALERAKO EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORU KALIFIKATUA, OKUPATUA, LIBREA, PROPOSATUA ETA GUZTIZKOA taula gaineratuko da.

* DEBA GARAIA. INDUSTRIA-PLANGINTZA BATERAKO APUNTEAK

	OKUPATUA	LIBREA	PROPOSATUA	GUZTIRA
ANTZUOLA	6,78	31,45		38,23
ARAMAIO	---	1'62	3	4'62
ARETXABALETA	23,68	9,5		33'18
ARRASATE	140,12	90,31		230,43
BERGARA	129'18	5'25	75	209'43
ELGETA	12,78	10,80		23,58
ESKORIATZA	18'94	13'25		32'19
GATZAGA	---	---	3	3
OÑATI	73,12	11,62	40	124,64
GUZTIRA	404,60	173,80	121	699,40

Era berean, plangintza orokorrean zein beren balizko kokapenetan proposatutako helburuak bidezkoztat eman dira, eta horien analisisa hurrengo atalean aztertuko da.

c) SUSTAPEN PUBLIKOKO ERAGIKETAK.

- GARAIA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO ARDATZA

Arrasaten kokatua 50 ha-ko azalera. "Bikaintasuneko espazio" baten moduan sortu da, bertan bat egiten dute ezagutza zientifikoaren hornitzaileek –hala nola unibertsitateak eta teknologia-zentroek– eta berrikuntza eskatzen dutenek, enpresetako I+G unitateak esate baterako.

- GARAGALTZA-BEREZAO ENPRESA PARKEA

Oñatin aurreikusitako plangintza orokor bateratu eta integraleko esparruak unibertsitate berriarekin lotuko den kalitate handiko enpresa-parke bat aintzat hartu beharko du, kalitate handikoa garatu beharreko jarduerari dagokionez zein ezarpenaren egokitzapen paisajistikoari dagokionez. 20 ha-ko azalera.

- JARDUERA BERRITZAILEEN PARKEA

Eskoriatzan kokatua (gaur egun burutzen ari da). 6 ha-ko azalera.

Eskoriatzako bainuetxearen ingurua (Esteibar) ingurumen kalitate handikoa da eta kokapen estrategikoan dago, zuzenean lotzen da Eibar-Gasteiz autobideko lotune urrietako batekin. Hori dela eta, kokaleku egokia da bertan garatu beharreko jarduerak aukeratzeko. Horrenbestez, ohiko industria-poligonoaren ordeztu, bertan Jarduera Berritzaileen Parke bat ezartzea proposatzen da.

- GARRAIORAKO ZERBITZU ZENTROA

Kokapena: Elkoromunio-Ipiñarri– Bergara. 45 ha-ko azalera.

Beasain-Durango ardatzaren eta autobidearen arteko lotunearekin lotzen den eremu logistikoa.

- ESKUALDE MAILAKO POLIGONO BERRIAK

Beasain-Durango ardatza eraikitzeke obren garapenaren jardun osagarriak eta, zehazki, Deskarga eta Kanpazarko tunelen kasuan.

DESKARGA

Antzuolan kokatua 25 ha-ko azalera.

Deskargako tunelarekin lotzen dena. Bergaraldeko azpieskualdeari egiten dio zerbitzu.

ZARAA / MONTZON

Arrasaten kokatua, Bergararaino zabal daiteke 20 ha-ko azalera.

Kanpazarko tunelarekin lotzen dena. Leintz haranari egiten dio zerbitzu.

- ESKUALDEKO INDUSTRIALDEA ARRASATEN

Arrasateko Garagartza haranean 10 ha-ko azalera duen industrialdea garatzea.

- GARAGARTZAKO HARANA ZABALTZEA

Emaldi eta Ekutioko jardunei esker, azken hori Olandixoko tunelarekin lotuta, 24 ha-ko azalera.

- BASO ETA EGUR HONDAKINEN BALORIZAZIO ENERGETIKORAKO INSTALAZIOA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuak bermatzen duen baso-hondakinak berreskuratzeko jarduerak. 2 ha-ko azalera.

Era berean, nekazaritza-ingurunearekin lotzen diren ekonomia-jardueren iguripenak barne har ditzake.

d) MERKATARITZA JARDUERA

Hasiera batean hiriko merkataritzaren garapena eskualdea berronkatzeko helburuarekin oso lotuta egongo dela pentsatzen dugu. Berronketa horren ondorioz bizitegi-ekarpenak Oñatin eta Bergaraldean bultzatuko dira, Leintz haranaren kaltetan. Horren eraginez, hiriko merkataritza gehiago deszentralizatuko da, eta horrek ez du eraginik izango saltoki handietan.

Saltoki handiei dagokienez, hipermerkatu bat eraikiko da Arrasaten, izaera direkzionaleko eremutik hurbil, eta ez da beharrezkoa izango mota horretako jarduerarako beste proposamenik. Instalazioa zabaltzeko aukera soilik aurreikusi beharko da, baita aisialdiko jarduerekin osatzea ere. Eremu funtzional osoari zerbitzu egokia egingo dion ezarpen bakarra sortuko da.

2.- LURRALDE ESPARRUAK.

4. planoan hainbat lurzoru-kategoria grafiatzen da ekonomia-jarduerak ezartzeko irizpideari jarraituz.

Aurreko atalean jada azaldu dira erabili diren irizpideak eta ezarpenetako gehienek kokapena. Honako proposamen hauek sortu dira:

- BERGARALDEA
Aurreko atalean dagoeneko azaldu diren Deskargako eta Elkoromunio-Ipiñarriko sustapen publikoko eragiketei San Joango zabaltzea gaineratu behar zaie.
- OÑATI
Oñati-San Prudentzio korridoreko haran nagusia betetzea planteatzen da, hau da, zeharkako haranak erabili gabe. Zeharkako haran horiek okupatu behar ez direla ulertzen da. Era berean, dagoeneko azaldu den sustapen publikoko eragiketa hartu da aintzat.
- LEINTZ BAILARA
Haranaren hegoaldean gaur egun dauden hutsuneak betetzea eta bertan hiri-continuum lortzea eta zabaltzea (Ekutio eta Emaldi) baino ez da planteatzen.

3.- UDALERRIAK.

a) KATEGORIZAZIOA

- LEHENTASUNeko INTERESA DUTENAK

• BERGARALDEA

ANTZUOLA:

Deskargako ekonomia-jardueretarako esparru berri baten plangintzak antzinako irundegi-fabrikak (Balzers – Elay eta beste batzuk) eta Lizarragako sakonunea –Elay-Camachoren kokapena– hustea eta birmoldatzea eskatzen du, bizitegi-eremu berriak ezartzearen.

BERGARA:

Aztertu ditugun Elkoromunio-Ipiñarri eta San Joango jardunez gain, San Antonio kotoi-fabrika birmoldatzea aipatu behar da.

Halaber, Elorregi-San Prudentzio esparrua eremu funtzionaleko zentro estrategiko eta direkzional gisa birkualifikatzea proposatzen da.

ELGETA:

Lehenik Elgeta lehentasuneko interesa duen udalerritzat jotzea planteatzen da. Izan ere, lehentasuneko interesa duen udalerrien artean barne hartzeko nahikoa elementu dituela uste dugu: dagoeneko garatu eta bete den ekonomia-jardueretarako eremuaren azalera, gaur egun dagoen poligonoa zabaltzearen aldeko barruko zein kanpoko eskariei erantzuteko udal-ekimena, eta komunikazio-sarbide berri bat zabaltzea, erkidegoz kanpoko mailakoa gutxienez (A-1 autobidean Amillagako sarbidea) –Elgetarekin konektatzeko bidetarteren bat hobetzea nahikoa izango litzateke–. Batetik, Pagatzako industrialdea zabaltzea proposatzen da, eta, bestetik, Berraondokua (El Modelo) eta Zabala Hermanos industriak hustea eta birmoldatzea proposatzen da, bertan bizitegi-esparru berriak garatu eta egokitzeko.

• OÑATI

Aurretik aintzat hartu diren betetzeko proposamenez gain, lehentxeago aipatu dugun Garagaltza-Berezaoko esparruko enpresa-parkearen proposamena ere lehentasuneko interesa duten esku-hartzeko maila honetan barne hartzen da. Epealdi honetan 20 ha-ko dimentsioa izango du gutxi gorabehera.

• LEINTZ BAILARA

ARRASATE:

Arestian aztertu ditugun Garaia, Zaraa-Montzon, Garagartza, Emaldi eta Ekutioko jardunei, Cerrajeran hasi den birmoldatzea gaineratu behar zaie. Birmoldatze horrek jarraipena izango du Gelma – Gameiko eremu mugakidean.

ARETXABALETA:

Haranari jarraipena emateko irizpidearen barruan, iparraldeko esparrua okupatzea planteatzen da. Bestalde, zerrategiko eremua birmoldatu egingo da bizitegi-esparru gisa egokitzeko.

ESKORIATZA:

Haranari jarraipena emateko irizpidearen barruan, hirigunearen iparraldeko eta hegoaldeko esparruak okupatzea planteatzen da, baita Santa Marina birmoldatzea ere, bizitegi-esparru gisa egokitzeko.

- HAZKUNDE MODERATUA

Elgetaren kategoria aldatu eta lehentasuneko interesa duen udalerrri gisa kalifikatzen denez gero, ez dago jada kategorizazio horretan barne hartzen den udalerririk.

- GARAPEN TXIKIKOA

LEINTZ GATZAGA:

Arlaban inguruan nekazaritza-ingurunearekin lotzen diren ekonomia-jardueretarako esparru bat ezartzea bultzatzen da. Antolamendua, erabilerak eta eraikuntza-tipologia kokalekuari egokitu zaizkio, kokaleku hori enklabe sentikortzat hartzen baita.

ARAMAIO:

Ez da planifikatuaz bestelako jardunik planteatzen. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako gutxieneko dimentsioen irizpideak mantentzen dira (3 Ha), eta udal-plangintzan zehaztu beharko dira.

b) DIMENTSIOAK

Atal honetan, dagoeneko planifikatutako lurzoruz gain, planteatzen diren zenbateko orientagarriak zehaztuko dira.

• BERGARALDEA

ANTZUOLA:

Deskarga 25 Ha. Industrialdea

BERGARA:

Elkoromunio-Ipiñarri 45 ha Aldundia/Ekimen pribatua

San Joan zabaltzea 30 ha Ekimen pribatua

ELGETA:

Pagatza zabaltzea 7 ha Ekimen pribatua

BERGARALDEA GUZTIRA 107 ha

• OÑATI

Garagaltza-Berezao 20 ha Erakunde artekoa

Oñati harana 20 ha Ekimen pribatua

OÑATI GUZTIRA 40 ha

• LEINTZ BAILARA

ARRASATE

Garaia	50 ha	Erakunde artekoa
Zaraa/Montzon	20 ha	Industrialdea
Emaldi-Ekutio	24 ha	Ekimen pribatua / Industrialdea

ARETXABALETA

Ez da planifikatutako jardunez bestelako jardunik proposatzen

ESKORIATZA

Ez da planifikatutako jardunez bestelako jardunik proposatzen

LEINTZ GATZAGA

Arlaban 5 ha Erakunde artekoa

ARAMAIO

Ez da planifikatutako jardunez bestelako jardunik proposatzen

LEINTZ BAILARA GUZTIRA 99 ha

DEBAGOIENA GUZTIRA 246 ha

ARRASATE BERGARAKO
LURRALDEAREN ZATIKO PLANA
(DEBAGOIENA)

BEHIN BETIKO ONARPENA

**5.- HIRI PLANGINTZARAKO IRIZPIDE, PRINTZIO ET
ARAU OROKORRAK.**

0.- SARRERA

Planean proposatzen diren mota guztietako proposamenen artean Lurralde Ereduan eta eskualdearen antolamenduan 16 urteko horizonte "labaingarri" honetan eragin berezia izango duten eragiketa eta esparruak definitzen saiatuko gara. Eragiketa eta esparru horiek denboran proiektio handiagoa izango dute sortu berri diren eta espazio-ahalmen handiena duten esku-hartzeetarako (dimentsio aurreikuspenen kasuan ere, eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko osagaiaren erabileraren ondorioz). Planak helburuen azterketa, analisia eta koordinazio-proposamena planteatuko du.

Planaren emaitzaren etengabeko jarraipena, kontrola eta kudeaketa egingo da, egokitu eta eguneratu ahal izatearren.

Ildo honetan, Planaz arduratuko den agente baten beharra planteatu da, eta agente horrek plana udalaz gaindiko dimentsio guztietan kudeatzeko eta garatzeko gauza izango da. Planaren eraginkortasuna planteatutako proposamenen egokitasun-mailaren araberakoa eta mota horretako planei dagozkien lurralde-kudeaketako mekanismoak orokorrean betetzearen araberakoa izango da.

Arlo honetan, gehiago zehaztuko dira eremu funtzionalean berezitasun eta garrantzirik handiena duten bi esku-hartzeak:

- Elorregiko interkonektorea
- Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabileretarako eremua

1.- HIRI ARLOKO ESKU HARTZEAK ETA ESKU HARTZE URBANIZAGARRIAK.

1.1.- Ekonomia-jarduerak.

Sektoreetako ahaleginen xede izango diren eskualde-mailako proposamenak zehaztu eta kategorizatze asmoz, honakoak dira esparru horien antolamendurako dimentsio egokiena duten lurzoruak (kostuak/aprobetxamendua) eta beren kokapenagatik udalaz gaindiko egitura zehazten dutenak:

EKONOMIA JARDUERAK.

- Deskargako (Antzuola) industria-sektorea
- Zaraa-Montzongo (Arrasate-Bergara) industria-sektorea

EKONOMIA-JARDUERA AURRERATUAK.

- Garaia plana
- Garagaltza-Berezao Enpresa Parkea

LEHEN SEKTOREKO EKONOMIA JARDUERAK.

- Arlabango (Leintz Gatzaga) industria-sektorea

1.2.- Hiri-birgaitze eta hiri-berrikuntzako eragiketak eta esparruak.

1.2.1.- Birgaitzea.

Hiri-birgaitzearekin (etxebizitza) zerikusia duen alderdiari dagokionez, eremu funtzionalak gai horretan diharduen antolamendu eta kudeaketako egitura aitzindaria (SURADESA) dauka. Birgaitze-ahaleginari eustea eta esku-hartzeak bizitegi-esparru degradatu sortu berriagoetara zabaltzea proposatzen da, baita adierazitako esparruetako birgaitze-dinamika eta birgaitze-kudeaketa onartzea, mugatzea eta sustatzea –beren berariazko problematikak halako neurria gomendatzen duenean–. Horretarako, arlo horretan eskumena duten organismoek baliabide gehiago eta anitzagoak zuzkitzea eskatzen zaie, eta eremu funtzionalari eskumenak esku-ordetu ahal izatea eskatzen zaie.

Hiri-plangintzarako barne hartzen diren esparruen zerrendan eremu funtzionaleko hirigune guztiak barne hartzen dira eta, zehazki, dagoeneko aintzat hartu diren birgaitze integratuko eremuak, nahiz eta horietako batzuek oraindik dagokien plan berezia ez duten.

Leintz Gatzaga, Bergara, Arrasate eta Oñati monumentu-eremutzat jo izanak bertako plan bereziak berriz landu beharra dakar.

1.2.2.- Hiri-berrikuntza.

Hiriguneak berreskuratzeko eta betetzeko hiri-berrikuntzako esku-hartzeak (industria-kokaleku zaharkituak ordeztzea) proposatzen dira, kokatzen diren hiriguneari dagokienez “pisu” handieneko esku-hartzeak zerrendatuz.

Guztiak industria-eremu zaharkituak bizitegi eta zuzkidurako garapen berri bihurtzeari dagozkio, ondoren zerrendatzen den bezalaxe.

HELBURUAK

- Lizarraga – Irundegia	(Antzuola)	Bizitegia
- S. Antonio kotoi-fabrika	(Bergara)	Bizitegia
- Berraondokua-Zabala	(Elgeta)	Bizitegia
- Zabaleta-Garratz	(Arrasate)	Hirugarren sektorea
- Unión Cerrajera Zabalgunea–Gelma-Gamei	(Arrasate)	Bizitegia -Zuzkidura
- Trefasa-Mendibarren	(Arrasate)	Zuzkidura
- BEROA-zerrategia	(Aretxabaleta)	Bizitegia
- CEGASA	(Oñati)	Hirugarren sektorea
- Sta. Marina	(Eskoriatza)	Bizitegia

Nolanahi ere, Planaren edo udal-plangintzaren zehaztapenak garatzeko egiten diren jardun guztietan, eta bereziki EAEko lurzoru polui dezaketen jardueren kokalekuen inbentarioan barne hartzen diren hiri-transformazioko esku-hartzeetako jardunetan, behar-beharrezkoa da kokaleku horiek oso-osorik birsortzea ikertzea, saneatzea eta sustatzea.

Udal-plangintzaren berriazko idatz-zati batek lurzoru poluituen problematikari erreparatu beharko dio, birsortzeko edo berritzeko estrategiak definitzearren.

2.- ERAGIKETA BEREZIAK LURRALDERAKO SARRERAGUNEETAN.

Horrelakotzat jotzen dira Aramaio, Elgeta, Leintz Gatzaga eta Oñatiko udalerriak.

Horietan guztietan “natura-ingurunerako atari” funtzioak informazio, ostatu eta kontroleko zereginetarako berariazko trebakuntza ekarri beharko du. Kasu batzuetan lurralde-zehaztapen zehatza eta kontzentratua dakar, eta beste batzuetan gune finkatuetako ezaugarri morfologikoetan integratu beharko da.

Bereziki honakoak proposatzen dira:

Aramaio

Landa-ostatua (landa-turismoa, hotelak eta landa-etxeak) suspertzeko politika garatzea, ingurumenaren zabalkundearekin eta jarduera-instalazioen sustapenarekin batera (kanpaldiak, ibilbide gidatuak, zaldiak, mendiko txirindularitza...).

Elgeta:

Lehentasunez kotzat jotzen da Maalako zuzkidura-multzoa abian jartzea eta barrutian aurreikusten diren jarduera eta instalazioak garatzea.

- Euskal Herriko Mendi Museoa eta Interpretazio Zentroa.
- Harrera-etxea eta egoitza kolektiboa.

Helburu honekin Asentzio eta Karabietako enklabeak sustatu nahi dira naturako egonaldi, ibilbide eta jarduerako leku gisa.

Leintz - Gatzaga:

Ingurune fisikoan integratuen dagoen hirigunea eta udalerria denez gero, natura-ingurunearen erabilerari lotutako esku-hartzeak udal-ekonomia sortzeko lehentasunez kotzat edota bakartzat jotzen dira.

Ildo horretan, gure iritziz, hiriguneaz gain, Arlaban gaina ere zuzendu beharko da ostatu kolektiboen eta aisialdi ekologikoko zerbitzuen eskaintza zabala sorraraziko duten instalazio eta jarduera berriak kokatzera.

Oñati:

Tamaina handiko gunea izanik, eta askotariko elementuak eta enklabeak dituen zergo, natura-inguruneari lotzen zaizkion jarduerak askotarikoak dira. Honako eremuak dira aipatutako elementu eta instalazio horiek sustatzeko eremurik egokienak:

- Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabileren zona.
- Arantzazu.

3.- KULTUR ONDAREA BABESTEKO ESKU HARTZEAK

Atal honetan ondare esangura berezia duten eremu funtzionaleko lekuak, multzoak edo elementuak barne hartzen dira, eremu monumentalen edo birgaitze integratuko eremuen kategorietan barne hartzen diren esparruez gain. Honako helburuak finkatu dira:

- **GATZ FABRIKA (LEINTZ GATZAGA)**
Gatz-fabrika eta Dorletako Santutegiaren multzoa antolatu eta kudeatzeko plana garatu eta onartzea.
Inguruko eraikinak eta instalazioak eta beren ingurunea (sarbideak, zerbitzuak, paisaia) birgaitzeko prozesuari jarraipena ematea, hasi diren jarduerak garatuz.
- **ARRIKUTZ HAITZULOAK (OÑATI)**
Natura-multzoa mugatzea, eta ingurunea babestu eta kulturaren arloan erabiltzeko plana garatzea.
- **ARANTZAZUKO SANTUTEGIA (OÑATI)**
Monumentu-multzoa biziberritzeko planak eta programak garatzea.
- **OÑATIKO UNIBERTSITATEA**
Multzo historikoa eta unibertsitate-erabilerako mugapen berriak antolatzea.
- **BERGARAKO ERRET MINTEGIA**
Eraikinaren inguruak balioztatzeke aztertu eta antolatzea.

4.- BESTE ZENBAIT ESKU HARTZE ETA KOORDINAZIO ESPARRU. PLANGINTZA BATERATUA ETA BATERAGARRIA.

Atal honetan behin eta berriro aipatu ditugun bi esku-hartze horietan modu zehatzago batean esku har dezaketen irizpideak eta elementuak azaldu nahi ditugu:

- Elorregiko interkonektorea:

Autobidearen eta autobiarene bidetarte komunarekin eta Oñatiko haranaren hasierarekin bat eginez, Elorregiko (S. Prudentzio) interkonektorea izeneko lurralde multzoa mugatzen da.

Komunikazioari eta garraioari lotutako interkonexioak bi proposamen zehatz ditu esparru horretan. Batetik, errepideko garraiorako zerbitzuen zentroa Elkoromunio-lpiñarrin (Bergara), eta bestetik, tranbia eta autobusen kotxetegiak Epele (Arrasate) aldean edo, tranbiaren azterketak (Fulcrum) planteatzen duen moduan, Elkoromunio-lpiñarri (Bergara) aldean kokatzeko proposamena.

Planaren proposamen nagusia Elorregi inguruneke funtzioen definizioan oinarritzen da eta horretarako proposatzen dira:

GARRAIOA:

- Geltoki intermodala (tranbia, autobusa, ibilgailu pribatua)
- Aparkaleku gomendatua.
- Eremu funtzionaleko jarduera eta zerbitzu guztiekin (ostalaritza, merkataritza, bertako produktua, eta abar) zerikusia duen lurraldeko harrera eta informazioko zentroa.

Eremu osoan eta batez ere komunikabideen sarean ingurumen-kalitate handiko urbanizatzeko esku-hartzea burutu nahi da (bidea/parkea) –eragin berezia izango du seinaleztapen bidezko informazioan–. Bestalde, Deba ibaiaren ubidea eta honen ibaiadar den Oñati ibaia araztuko da.

Ingurune honen erregulaziorako behar-beharrezkoa izango da Bergara, Arrasate eta Oñatiko plangintzen arteko koordinazioa.

- Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabileren zona:

Oñatiko hirigunea hiri-saihesbidearen trazaduraren aldamenean barne hartuz, eskualde-mailako erabilera eta elementu jakin batzuk kokatzeko azterketa bateratua egiteko barruti gisa mugatzen da zona zabal hori.

Aisialdiari eta kirolari lotutako instalazio eta zerbitzuez (golf-zelaia), hotel-instalazioez eta unibertsitate-campusaz gain (hirigune historikoan eta inguruetan dauden instalazioak handituz), Garaia Planak Arrasaten mugatzen duenaren antzeko "enpresa-jardueren parke" bat garatzea proposatzen da.

Hemen adierazitako multzoak behar-beharrezkoa du ekimen publikotik antolakuntza-eskema koordinatua eta denborazko garapen-prozesua ezarriko dituen berariazko azterketa (plan gidaria), eta funtsezkoa izango da administrazioak planteatzen diren ekimen guztietan parte hartzea.

- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan proposatutako Aretxabaletako eta Eskoriatzako plangintzen bateragarritasunari jada ekin zaio udalerrri horien Plangintzako Arau Subsidiarioak berraztertzean.

ERANSKINA: EREMU FUNTZIONALERAKO PROPOSATUTAKO
EREDUAREN ETA HURBILEKO LURRALDE INGURUNEAREN
ARTEKO ERLAZIOA.